

Eguberrien atarian



Arg.: Gema Arrugaeta



resti

URTEAGAREN SEMEAK, O.E.
Nafarroa Etorb. 15 - behea
☎ 88 09 77
BEASAIN

KELER

Zaporearen indarra

MIKEL ETXEBERRIA

Edari banatzailea

San Bartolome, z/g

☎ 88 12 21

ORDIZIA

FOTOETXE

Nafarroa Etorb., 25 BEASAIN

Goen

Nagusia, 6 ORDIZIA

ETXEKO
ERREBELATUA



49 PZTA.

KARRETEA
DOAN
GUTXIENEZ
20 ARGAZKI

BERTAN
ERREBELATUA

ARGAZKI GUZTIAK ZUZENDU ETA
BIDEOZ KONTROLATZEN DIRA

Video
Monitoring
System

SUPER
NEURRIA

49 PZTA.

INDIZE
KOPIA

NEURRI HANDIAGO
10x15aren PREZIOAN

SUPER NEURRIA (13x18)

ERREBELATU
MERKEA

29 PZTA.

ERREBELATU AUTOMATIKOA
• 3 EGUNETAN
• 10x15 FORMATOA

BIFOTO

49 PZTA.

2 KOPIA BATEN
PREZIOAN • FIDELTASUN
ESKAINITZA: 3 ORDAINDU
ETA 4 ERREBELATU



FOTO
8
FOTO
FUJI INSTANT
PICTORIAL

MINUTU GUTXITAN!
ARGAZKITIK
ARGAZKIRA
ZURE ARGAZKIEN
KOPIAK
NEGATIBO
BEHARRIK
GABE

ZUZENEAN 20x30 zm ARTE

BIDEOTIK
BIDEORA
BIDEO KOPIAK,
EDITAJEAK, e.a.

KOLOREZKO
LABORATEGIA
ZERBITZU AZKARRA
FUJIFILM PRODUKTUEN
GARANTIA ETA KALITATE
HANDIAREKIN

Argazki berritze eta manipulazioa (digitala)
eta CD argazkiak ... **ERE BAI**

FUJIFILM

MUNDUATE ERLOJUTEGIA orain zure BITXITEGIA

BITXI AUKERA HANDIA:

ESKUMUTURREKOAK, LEPOKOAK, PERLA-
KOILAREAK, BRILANTEDUN BELARRITAKO
ETA ERAZTUNAK, e.a.

ERLOJU AUKERA ZABALA:

KRONO-ALARMA ERLOJUAK, KLASIKOAK,
URREZKOAK, BI KOLOREKO KORREA ETA
"ARMIS" AREKIN, e.a.

Artikulu guztiak prezio ezin hobean.

ERABAT BERRITU ONDOREN LEHENGO
ERLOJUTEGIAN PARETEKO-ERLOJU,
GELAUURREKO, MAHAIGAINENKO ETA OPARI
ARTIKULUEN ERAKUSKETA BERRIA.

ERLOJUTEGI ZAHARRAREN
BERRIRIKITZEA ABENDUAREN 13AN.

Erregeak arte larunbat arratsaldetan zabalik

1883 URTEAN SORTUTAKO ETXEA

Kale Nagusia, 1-2 ☎ 88 12 72 ORDIZIA



**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre
Argider Mujika

Erredakzio Batzardea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Pilare Mujika,
Urko Irastorza, Koldo Urres-
tarazu, Josune Aldabe, Edurne
Albizu, Aitziber Murua, Nagore
Goiburu, Antonio Berasategi,
Karlos Ioldi eta Maizpide Euskal-
tegia.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**'Lazkao Txiki' marrazki bizidunak
Gabonetan**

Gabon egunean, Urteberri egunean eta Errege egunean pantailaratuko dira 'Lazkao Txiki' marrazki bizidunen lehen atalak, ETB-lean, gaueko 9.00-etan. Ondoren, urtariletik aurrera astero eskainiko dituzte atal guztiak.

Irusoin ekotzetxeak egin ditu marrazki bizidun hauek, Fernando Amezketa-tarrarenak egin dituen etxe berak. 'Lazkao Txiki' marrazki bizidunetan aktoreek jarriko dute ahotsa, bertsolariak bertsuak kantatuko dituzte bakarrik. 52 atal izango dira guztira.

Joxe Migel Iztueta 'Lazkao Txiki' bertsolariak bizitzan izan zituen hainbat pasadizu azaltzen ditu marrazki sail honek. Ume koskorra zeneko gertaerak, es-

kola eta soldadutza garai-koak, eta bertsolari bezala herriz herri bizi izan zituenak biltzen dira. Garai bateko eta gaur egungo bertsolariak ere azalduko dira. Tartean Uztapide, Xalbador, Basarri, S. Lizaso, Euzkitze eta Egaña.

Marrazki hauen gidoia Koldo Izagirre idazleak egin du, Lazkao Txiki gertutik ezagutu zutenekin egon eta idatziak dauden dokumentuak aztertuz.

Sail honetako marrazkiak, Fernando Amezketa-rra sailekoak baino modernoagoak izango omen dira. Publikoa familia izango denez, diseinua modernoagoa egin da, guztiak ere itxura erakargarriagoarekin.

BOTA BERTSOA



Jon Agirre

Bertso txapelketa

Aurtengo lehia heldu da azken txanpara belodromoak jartzen duan tranpara santurikan badago guztiak anpara zortzi bertsolariak baitoaz gudara azturik ikara zazpi gizon hara neskato bat bada sorgindua jada ta guztia nasteko bat nahikoa da. (Bis)

Zortzi erregetara legeak dionez bi ustel banatuaz arrats ta goizez hamarreko handian puntuak eginez goierritarra esku geurea degunez keinurik ez legez Mañurik ez denez ordagoan babes enbidotik ihes bertsuaren jokoan txapela ames. (Bis)

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Ataungoei:

Lareori buruz idaztea nator-kizue eta ez ezer berririk jar-tzeko gainera. Herritar bat-zuk (agintariak gehienak), gune-turistikoa kokatu as-moz dabilta, eta hortarako 15 lanpostuen eskusak plaza-ratu dituzte. Ez noski lanpos-tu horiei buruzko zehaztasu-nik, ze zakar kontratu mota egingo diran, ze iraupeneko-ak...

Ur fabrika ere egitekoak zineten, Lareokoaren lanpos-tu bikoitzekin; Aitor Auz-mendi jauna: noiz hasi behar haiz erronkak herriari begira zuzentzen, Ataun eta bere in-guruneak errespetatuz? Her-rian ez zarete pizsina bat egiteko gai eta orain Bilboko señoitoentzat Lareon egite-ko asmoa duzue. Ataundar kottauak...

Jon Agirre (Lazkao)

Bideoak, konpak-diskak, pailazoak eta haurrak

Badira urte batzuk pailazo-gintza utzi nuela, hala eta guztiz ere nire irudia eta ize-na, Pirritx izena Pirruxena ordezkatzera etorri da eta ho-nen aldaketa fonetikoa beste-

rik ez baita, zabaltzen jarrait-zen da. Honetaz gain, landu nituen gidoi eta antzeppen batzuk berrerabiliak izan dira bideoetan eta ikuskizunetan. Duela hilabete batzuk ospet-su izatera lagundu ninduten pertsoneri eskerrak eman niz-kien, 'Artista haundi hauei' artikuloaren bidez Ordiziako musika eskolako neska-mu-tilei zuzenduta. Oraindik bi-deoak eta konpaktoak salgai ikusten jarraitzen ditudanean uste dut eskerrak ematea ez dela nahikoa izan. Takolo, Pirritx eta Porrotx taldea Euskal Herri osoan ospetsua egin zen diskeen salmentari esker. Diska hauek Ordizia-ko neska-mutilen laguntzaz grabatu ziren. Ospetsua iza-teak emanaldi gehiago ekarri zuen. Bestaldetik emanaldia-ren heren bat diska hauetako abestien play-backez osatu genuen. Gero bideoak etorri ziren, eta bertan musika es-kolako haurrek abesten, dantzatzin eta antzezten du-te, hau da bere partaidetza ezinbestekoa izan dela, ez la-guntza bezala, baizik eta arlo artistiko guztietan.

Musika eskolako haurren partaidetzak 'balore erantsi' bat izan du. Bere lanik gabe ez zen diskarik salduko, ez zen emanaldirik izango,

play-backik gabe ez zen an-tzezlanik burutuko, ez zen posible izango bideorik sal-tzea. Nire iritziz produkto guzti hauek eman dituzten etekinetatik bertan parte hartzen duten hurrei saritu behar zaie. Dudarik gabe, Matxinsalto produktorak, bi-deoen, kasetten eta konpak-toen jabea eta salmenten onuradunek haurren lana eta partaidetzak kontutan izango dituela espero dut.

Pirrutx, Patxi Sanz

(Ordizia)

Festak bakean nahi ditugu!

(Ormaiztegiko kronikatik dator) Ander Deunaren egu-na iristearekin batera su arti-fizialen ordezkatelek sortu-riko sua izan genuen. Badi-rudi Ormaiztegiko festa guz-tietan herria erasotzeko ohi-tura hartu dutela, azkena San Migeletan izan baikenuen. Minutu gutxi batzuen bu-ruan, gure herriak festa giroa izatetik herri suntsitu baten itxura hartu zuen. Harrapa-tzen zuten guztiari su eman zioten, beraien artean herriko bi banketxeei. Talde basati

hau herriratu eta beraien ekintzak aurrera eramaten hasi zenean herritar batzuk aurre egin zieten azken hauek ere koktelen erasoak jaso zituztelarik.

Banketxe horien gainean bizi diren herritarretariko gehienak ohean zeudenez, ahal zen bezala esnatu eta kaleratu beharrean aurkitu ziren. Berauetariko batzuk suaren eraginez gaua beraien etxeetatik kanpo pasa behar izan zutelarik. Konturatu zen herritar gehiengoak kaltetu-ena hurbildu eta beraien egoeraz kezkatu ziren sua it-zaltzen saiatu ziren bitartean.

Hala ere herritar gutxien-go bat gertakizunen lekutik behin eta berriz ezer gertatu ez balitz bezala igaro zen, hainbat herritarrek ekintza hauek publikoki salatzea es-katu zieten unean irainak bo-tatzeari ekin ziotelarik. He-rritar gehienek nahia ekintza hau publikoki salatzearena da, argi gera dadila gehienon nahia, festak bakean nahi di-tugu!

Aitziber Murua
(Ormaiztegi)

DENA 100 DIK

- x Euskal zeramika
- x Opariak
- x Koadroak eta markoak
- x Loreak

☎ 88 41 85 **ORDIZIA** ☎ 16 21 67
Elkano, 10 Urdaneta, 12

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA


Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15
☎ 16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA



ondoeta

Nagusia, z/g.

Tfnoa.: 883102. Faxe: 88 0872

ITSASONDO

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

TXANDAKA

Ongi etorri San Nikolas

Gauza bat aitortuz hasi nahi nuke nire gaurko txanda: uste dut zer pentsatua eman beharko lidakeela, baten bati nitaz "hau berrikuntzei kontra egiteko pronto dago beti" entzuteak. Ez nuke, aldaketak egiteko garaian, aurriritzia besterik ez duen horietakoa izan nahi, behintzat.

Ez dut ezer Goierriren izena interneten sartzen ahalegintzen direnen kontra; oso ondo deritzot Goienizkoek ozeanoaren handikaldeko zinea ekartzeari, euskara gaurkotu eta dendetan nahiz CAFen sartzeari... baina zapatuan San Nikolas izan zen.

Eta bere historiaz eta bere aspaldiko gauzez hain gora mintzo den herri honetan, uste dut ez dugula behar den ardurarik izan, horiek hobeto ezagutu eta, ontzat emanez gero, bizipoz bihurtzeko. Urrutiko intxaurren hotsak, geureak alde batera uztera eraman gaitu gehiegitan; ezagutu gabe, ordea.

Horregatik, zorionak Segura, zorionak Zegama, gustukoa izan duzuen San Nikolas ahaztu ez duzelako; zorionak Zegamako kontu zaharrak liburuan biltzeagatik; zorionak Idiazabalen aspaldiko pasadizoak berriz biziarazi zenituztenoi... Zergatik den esaten ez nuke oso ondo asmatuko, baina apustu, horrelakoak ahaztu nahi ez dituzten herri eta jendeena dela zoriona.

Antonio Berasategi



Nork irabaziko du Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa?



Julen Aramendi

16 urte, ikaslea
zegamarra

Egañak, pentsatzen dut. Bera da nire favorittoa. Ez dut uste sorpresarik egongo denik.

Juan Larrea
65 urte, erretiratua
zegamarra

Egañak. Dударik ez dago. Bigarre-na Lizaso izango da.



Nikolas Zabaleta
60 urte, erretiratua
zegamarra

Nik uste Egaña izango dela txapelduna aurren ere. Lizaso ondo ibiltzen da, baina Egañak irabaziko du.

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

*Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak*

Iturtxo, 5 ☎ 16 22 56 ORDIZIA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



Juanito Rubio



Oianguren parkea

☎ 88 91 06

ORDIZIA

MENU BEREZIAK

- Babarrunak, baserriko oilaskoa eta etxeko postrea 2.300 pzta.
- Sagardotegiko menua ... 2.500 pzta.
- Asteburuko menu bereziak

EGUNEROKO MENUAK

- ✕ Egunekoa
- ✕ Lanekoa
- ✕ Karta

ZINEA

BEASAIN:

'Siete años en el Tibet'. Ostirala 12, 10:15, larunbata 13: 19:30 - 22:15. Igandea 14: 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 15: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'La teniente O'Neill'. Ostirala 12, 10:15; igandea 14: 19:30 - 22:15; astelehena 15: 19:30.

'Lolita'. Larunbata 13: 19:30 - 22:15.

'101 Dalmatas'. Igandea 14: 16:45.

'Alien 3'. Ostirala 19: 22:15; larunbata 20: 19:30 - 22:15; igandea 21: 19:30 - 22:15; astelehena 22: 19:30.

'El jorobado de Noredam'. Igandea 21: 16:45.

GOIENIZ:

Abenduak 18, Usurbe Antzokian, 21:00etan.

'Los amantes del Pont-Neuf'

Leos Carax
(Frantzia, 1991)

Parisko zubirik zaharrenean (Pont Neuf, 400 urte) 28 urteko akrobata sujaleak, Alex, eta itsu geratzeko zorian dagoen margolariak, Michele, amodio istorio erromantiko bezain tristea biziko dute.

Paris frantse iraultzaren bigarren mendeurrenako ospakizunetan murgilduta dago eta giro honetan kokatuko dira filmeko elementu desberdinak: clochard (eskaleak), Senako zubiak eta borondatezko desagertuak, besteak beste.

Frantziar zinema erromantikoa izenburu nagusienetako bat izaki, Leos Carax zuzendariaren hiru garren eta azken filmea da ziuraski bere lanik onena, baita Juliette Binoche eta Denis Lavant protagonisten aldetik ere.

MUSIKA

ATAUN:

Abenduak 28, Organo kontzertua Vicente Rosen eskutik, San Martingo elizan, 20:00etan.

BEASAIN:

Abenduak 12, ITV, Kafe Teatro eta 6 Memen 9 taldeen kontzertua, San Martin plazan, 21:30etan.

Abenduak 14, Loinatz abesbatzaren eta Oroith abesbatzaren kontzertua Andre Mari Zerutuaren Parrokian, 19:30etan.

Abenduak 21, Loinatz eta Loinatz Txiki abesbatzen eta Musika Eskolako Koruen kontzertua Andre Mari Zerutuaren Parrokian, 20:00etan.

ORDIZIA:

Abenduak 21, Santa Ana Txiki eta Santa Ana abesbatzen Eguberri kontzertua, 20:00etan, Elizan.

Abenduak 25, Beti Argi musika banda, Plaza Nagusian, 13:00etan.

ZEGAMA:

Abenduak 28, Orkatz abesbatzaren eskutik, Eguberri jaialdia, San Martin parrokian, 19:00etan.

BESTELAKOAK

BEASAIN:

Abenduak 17, Irakurketa suspertzeko emanaldia Itziar Zubizarretarekin, 18:30etan, Kultur Etxeko Liburutegian.

ORDIZIA:

Abenduak 22, 'Galtza gorriak' txotxongilo ikuskizuna, Jubilatuen egoitzan, 18:00etan.

Abenduak 28, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, Majori kiroldegian, 17:30etan.

Abenduak 23, 26, 29 eta 30, Arrate Leundaren eskutik, 'Gabonetan ipuin kontari' zikloaren barruan ipuin kontakizunak, Barrenan, goizeko 11:00etan.

Oinetakoak

Oiarbide

Laskurain, 12 San Inazio, 14
 ☎ 65 37 86 ☎ 16 04 34
 TOLOSA BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA
 Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Unibertsitate-maila
- ✓ Banakako laguntza
- ✓ Talde txikiak

Informazioa:
 ☎ 16 01 20 Joan Iturrialde, 5 BEASAIN

IRURENA

LENTZERIA MERTZERIA
 ESKU LANAK

☎ 88 04 47
 Urdaneta, 29 ORDIZIA

ARRANO TABERNA

Pintxo eta ogitartekoak



Eguberrietan ere preso eta iheslariak gogoan

Nagusia, 12
 BEASAIN

HITZALDIAK

LAZKAO:

Abenduak 16, Bakarrik dauden emakumeak edo/eta karga familiarrarekin, gaia, Diana Sauca psikologoaren eskutik, Udaletxeko batzar-aretoan, 17:00etan. Antolatzailea: Azki emakume taldea.

IKUSENTZUNEZKOAK

LAZKAO:

Abenduak 17, 'Neguko Solsztizioa Euskal Herrian', Patxi Sanzen eskutik, 21:00etan, Maizpide Euskaltegian.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Abenduaren 14ra arte, 'Komikiak 100' erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa-aretoan.

ORDIZIA:

Abenduaren 12ra, Axier Mendizabal, Iñaki Garmendiaren eta Jaume Sabaterren erakusketa, Barreran.



ZEGAMA:

Urtarrilaren 7ra bitartean, 'Buztingintzaren azarnak, Gregorio Aramendiren omenez' zeramika erakusketa, Eskola Zaharrean.

IRTEERAK

Idiazabalgo mendizaleak:

Abenduak 21: Malkorra - Etxegarate.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Alokatzeko baserri bat bila gabiltza. Berdin zai-gu zein egoeretan dagoen. Deitu goizetan: 88 28 27.

baxu anplia salgai, 80 batio-koa. 88 47 68. Jon.

☐ Rieju motorra salgai. 5 abiaduratakoa. 88 51 06.

Salerosketak:

☐ Bi metroko tresillo ia berria salgai. 20:00etatik 22:00etara deitu: 88 96 87.

☐ 5 erregistroko esku soina salgai. 88 83 18. Egur-dietan edo gauetan deitu.

☐ Metal zone MT2 distortsio pedala eta Peabe TKO

Bestelakoak:

☐ Altzari zaharrak botatzeko baldin badauzkazu, gu joango gara jasotzera. Eneko. 88 15 73.

☐ San Miguel Arcangel kontsultorioa: bidentzia, kartak botatzea, aura garbiketara eta zazpi potentziatoko bainua. 16 06 79 - 88 99 83.

Zerbait saldu, erosi, eskaini... nahi baduzu, hau da zure txokoa.

Iragar zaitez GOIERRITARRAN

124 p.k. ORDIZIA

Tfnoa: 88 96 12 - Faxa: 88 27 19

Itoizko urtegiaren aurkako eguna

Beasaingo Gazte Asanbladak antolatuta, gaur ostirala, abenduak 12, Itoizko urtegiaren aurkako eguna izango da Beasainen. Iluntzeko 8.00etan, Udaletxeko Batzar-aretoan, Itoizko urtegiari buruzko bideo emanaldia eta hitzaldia izango da. Ondoren gaueko 9.30etan, kontzertua izango da San Martin plazan. Bertan parte hartuko duten taldeak: ITV, Kafe Teatro eta 6 Memen 9.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia).

Azaroak 29-30: Atorrasagasti (Gipuzkoa, 15 -Ordizia).

Abenduak 6-7: Cuesta (Nafarroa Etorb., 39-Beasain).

APURKA
OIHALAK KILOKA

Gabon zoriontsuak!

Jantziak neurrira (heldu eta haurrentzat)
Baita moztu eta probatu ere

San Inazio, 6 - A ☎ 88 90 10 BEASAIN

GEMA
OINETAKOAK

Gabon zoriontsuak!

Nafarroa Etorbidea,7

☎ 88 94 45 BEASAIN



Labores **Otea**

Gurutze-puntua
Petit point
Artileak, e.a.

☎ 16 23 84

Andra Mari, 1 BEASAIN



Karlos Ioldi

Murtzian preso ataundarra

“Maomendi izan zinena eta zarena galtzeko arriskuan zaude. Horrexegatik, triste egongo zarela pentsatzen dut. Hala ere ez zaitez tristetu, eta jakin ezazu Amalurraren defentsan eta urteetan barrena jipoitua, zauritua, bihotz hondoraino minduta gauden zure sorterriko seme-alabaok ez zaitugula galbidean utziko. Eta esango dizut ere, zure etorkizuna, zure gehiengo seme-alabaok deliberatuko dutenarekin soilik atxekitua izango dela”

Bakartia, herabetia zinen. Basapiztien babes leku. Artzai eta nekazarien konplizea. Lur emankorra zenuen eta duzu. Atsedean bila zihoan edonoren amorantea. Kanpokoen eta herritarron arnas leku, baina bazter preziatua, utziko ahal dizute izan zarena eta izan nahi duzuna izaten?...

Urteak dira sorterritik, zure magaletik arrotzen morroiak urrunera preso eraman nindutenetik. Hala ere, urteak aurrera joanda ere, zure iraganeko edertasun hura ongi gogoan gordetzen dut.

Eta iraganekoa diot, zeren eta katibuan naukaten urte hauetan, bailarako herri nagusiei uraz hornitzeko aitzakipean, zibilizazioaren aztarnak pairatu, eta zure soinean urtegia egin dizutela, jakin badakit ere.

URTEGIAREKIN ederra zaudela esan ohi didate, eta argazkien bidez ikusi dudanez, honela dela, esango nizuke.

Baina bazter preziatua, orain zurekin egitea proiektatzen dutenaz jabeturik, zure soinean daramazun urtegia, ez al zen izango zuren hondamendiaren sorrera, eta ataundar guztion norabidearen noraezeko sorrera?

Sorterria “hilik” dagoela. Lanpostuak sortu behar omen dira. Berpiztu egin behar omen dugu herriko garapen sozioekonomikoaren egoera eta balizko etorkizun honen emaria zu izango omen zara bazter prezitua.

Sasi argudio hauek Enbata izeneko enpresak zabaldu eta bereak egin ditu Udaltxeko Arduradun direnak, zurean proiektatzeko asmoa

Maomendi

duten konplejo turistikoa begi onez ikusteko.

AZKEN HAUDENTZAT, guztiz justifikatua legoke zuri egin nahi dizuten zauri larria. Ez dira ohartzen, edo ez dute ohartu nahi, bertan sortuko liratekeen lanpostu batzuen ondotik, zure baitatik bizi diren artzaie desagerketa letorkeela? Azken finean, lanpostu hoiien aldaketaren bilakaeran, izan ginena eta garenaren nortasuna galdu, eta gurekin kontatu gabe Goiekiko ahaltsuek guretzat eraiki nahi duten xenda oparoan sartzearen erabakiaren islada zatekeen.

Maomendi, zure baitan burutu nahi den zauri larria, herriaren balizko garapen sozioekonomikoaren izenean burutu nahi dute. Hala ere, beldur naiz herriko interesen gainetik, ez ote dau den beste interes batzuk.

BELDUR NAIZ, zure edertasunari so egin eta zurekin zein ataundar guztiokin burutu nahi duten plangintza bildurgarri horren sustraie-tan, ez ote diren egongo soldata ederrak dituzten jaun-txo vascongadoak.

Badakit ere, une hauetan zure geroaren etorkizuna, zu eta zure ingurua parke naturala izendatu zintuen arduradunen erabakiaren menpe dagoela.

Arduradun hauei oroitu arazi nahi nieke, zein den beraien ibilbidearen xedea, eta zurekin burutu nahi den zauri larria, zein honen on-

dotik sortuko liratekeen garapen sozioekonomia, guztiz aurka doala beraiek aldarrikatzen dituzten helburuekin.

Izan ere, zure ingurugiroa hondatzeaz gain, bultzatu nahi duten Naturarekiko errespetuzko turismoak, ez du zerikusirik beraiek une honetan aztertzen ari diren egitasmo horretan bultzatu nahi duten turismo motarekin.

Aipatutako arduradun hauek, duinak izango ote diren, eta izango dituzten presioari amore eman ez, eta zurekin burutu nahi den zauri larriari ezetza emateko nahiko ausardia izango ote dute?

MAOMENDI izan zinena eta zarena galtzeko arriskuan zaude. Horrexegatik, triste egongo zarela pentsatzen dut. Hala ere ez zaitez tristetu, eta jakin ezazu Amalurraren defentsan eta urteetan barrena jipoitua, zauritua, bihotz hondoraino minduta gauden zure sorterriko seme-alabaok ez zaitugula galbidean utziko. Eta esango dizut ere, zure etorkizuna, zure gehiengo seme-alabaok deliberatuko dutenarekin soilik atxekitua izango dela.

Maomendi, zure gutuna amaitzeaz nengoen une honetan, zuk ongi asko ezagutu eta berak hainbeste maite zintuen lagunminaren heriotzaren berri izan dut. Le-ro hauen bidez bada, eta saminez beterik, zuri eskaini dizudan gutun hau, berari ere eskaini nahi nioke, sorterrian genuen azken txondargileari, Kamioko Azenzio lagun prezituari.

Saminez, baina trinkotasun osoz.

ERREZETA



Berni eta Maite
Ostatua
Itsaso

BABARRUNAK

Osagaiak: babarrunak, tipula, olio, ura eta gatza.

Ur hotzetan jarri babarrunak. Irakinik galdu gabe egosten eduki. Egosi ondoren, gatza bota. 3 edo 4 ordutan eduki behar dira egosten, poliki-poliki.

Zartagian, oliotan tipula txikitua gorritu eta babarrune bota.

Babarrune laguntzeko odolki, aza, txorixoa, saiheskia... aparte egosi. Eta bakoitzak nahi duena bota diezaiola.



Maizpide Euskaltegia

Gaur egun, lagunarteko solasean, euskaraz ari garenean ere, entzun eta esan ohi da hainbat trakeskeria, erdaren eraginatik edo; badugu zuzendu beharreko makina bat esamolde desegoki, hitzetik hortzera erabili ohi dugun esaldi trakets ugari. Hona segidan adibide batzuk:

Beasainen, Ordizian, Lazkao... lagun-koadrila basoerdiak edo txikitoak ("basoerdiak" edota txikitoak; eta ez "poteak", arren!) edaten ari delarik, eta taberna batean nahikoa denbora pasa duelarik, maiz esan eta entzun ohi da honelakorik: "Goazen beste tabernara, hemen ikusi gaituzte eta...!". "Goazen beste tabernara" esaldia, herri osoan bi taberna baino ez badaude, egokia litzateke, edota, herrian bi taberna baino gehiago izan arren, laguntaldeak bitara bakarrik sartzeko ohitura baldin badu, tira! Baina bestelakoan, eta

AHOLKUA

Euskara hobean, hobe!

horrela izaten ohi da normalean, "Goazen beste tabernara" nahiz "Goazen beste batera" izango litzateke esaldi egokia.

"Goazen beste lekura", "beste herritik", "beste denakoa", "beste egunean"... eta honelakoak batzuetan egokiak izango dira, jakina! baina beste askotan ez: "Goazen beste leku batera", "beste herri batetik etorri dira", "hau beste denda batean erosi dut", "beste egun batean"... esan beharko genuke, hots, "beste" soilik ez, "beste bat / batean / batera / bateko / batetik"... edota "beste... bat", etab.

Beste adibide bat: "Beste egunean Ordizian ikusi zintudan, baina ez zenidan kasurik ere egin!". Esaldi hau ere ez da oso egokia. Zergatik ez esan: "Aurrekoan Ordizian ikusi zintudan", "aurreko egunean", "lehengoan", "lehengo egunean", "joan den egunean"...? Edota, gauza berbera ez den arren, ñabar-duratxo bat eransten badio ere: "Aurreko batean", "lehengo batean"... eta horrelakoak?

Beste adibide bat: "Pixka bat handiagoa nahi nuke", "pixka bat merkeagoa nahi dut", "pixka bat altuago", "pixka bat bajuago"... Zorioneko, edo zoritxarreko, "pixka bat" hori ere hitzetik hortzera erabili ohi dugu; "pixka bat" gora eta "pixka bat" behera!!! Baina zergatik ez honela: "handixeagoa nahi nuke", "merkexeagoa nahi dut", "altuxeago", "bajuxeago"...?

Beste bat: "Pixka bat handia / txikia / garestia / gaizki / ondo"... Zergatik ez: "Handi samarra / txiki samarra / garesti samarra / gaizki samarra / ondo samarra"...? Edota "nahikoa handia / nahikoa txikia / nahikoa garestia / nahikoa gaizki / nahikoa ondo"...? Edota zergatik ez erabili hain normalak ditugun forma jator-jator hauek: "garestitxo", "txikitxo"... nahiz "aukeran garesti(txo)", "txiki(txo)a, aukeran"...?

Eta bukatzeko, "berdin samarra"-en pare-parekoa dugun hau ere ez genuke ahaztu behar, ahaztuxea baitugu: "berdintsu", eta "honelatsu", "bezalatsu", "antzeratsu".



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35	Elosegi, 14	Sta. Maria, 19
☎ 88 77 58	☎ 88 72 79	☎ 16 00 44
BEASAIN	LAZKAO	ORDIZIA

1.514 sinadura Langabezia eta pobrezia-aren aurkako legearen alde

Euskal Autonomia Erkidegoan langabezia eta pobrezia-aren egoera ikusita, Bizkaiko Gogoa, Gipuzkoako Eraiki eta Laudioko Elkartasuna plataformek, langabeziaren eta pobrezia-aren aurkako Giza Eskubideen Aldeko Gutuna aldarrika dezaten, Eusko Legebiltzarri lege proposamena aurkeztu diote. ELA, CCOO, LAB, UGT, STEE-EILAS, LSB-USO, ESK-CUIS eta SINTRABI sindikatuen atxekimendua jaso du proposamen honek. Plataformak emandako datuen arabera, EAEn 250.000 langabetu daude; 180.000ek ez dute INEMetik ezer kobratzen; 90.000 iraupen luzeko langabetu dago; %30a emakumezkoa da; eta %40a 25 urtetik beherakoa.

Eskubide hau Legegitza Ekimenaren bidez lortu nahi izan da; hau da, 30.000 sinadura bilduz Eusko Legebiltzarrera proposamena aurkeztuz. Aurrikuspenak bete eta Euskal Autonomia Erkidegoan 82.053 sinadura bildu dira.



Goierri ELA eta ESK-CUIS sindikatuek eraman dute aurrera kanpaina. Honela, 1.514 sinadura bildu dituzte.

Langabezia eta pobrezia-aren aurkako legearekin, "guztontzat eskubide berberak baino ez ditugu eskatzen. Horregatik, erakunde publikoei Lana Banatzeko lege bat, oso xumeak diren bi ideietan oinarritutako Gizarte Gutunaren onartzea eskatzen diegu", diote ELAko Pedro Irastorza, eta ESK-CUISeko Jon Gartzia eta Patxi Sukiak. Giza Eskubideen Gutunaren aldeko ekimen honek

hiru eskakizun jasotzen ditu: batetik, lan merkatuak bidea itxita duten pertsona guztientzako hiritartasun eskubide unibertsalaren berrezarpena, "persona eta talde sozialen elkartasun eta berdintasun printzipio unibertsalen arrazoipean, enplegua eskatzen dutenen artean lan denboraren banaketa"; lan denboraren banaketa, "asteko 32 orduko lanaldira murriztuz, jubilaziorako adina 60 urtera aurreratu, ordu estrak desagertarazi eta behin-behineko kontratuak finkoengatik ordezkatzuz"; eta errenta sozialerako hiritar eskubi-

dea, "lan merkatutik kanpo dauden hiritarrek eta behar adina diru-sarrera ez dutenek, oinarritzko errenta baterako eskubidea izatea, enplegua eskatu eta aurkitzen ez dutenei luzatuko zaiena".

Ordizian, Lazkaon eta Beasainen Giza Eskubideen Gutunaren aldeko ekimenaren mozioak aurkeztu ditu IU-EBk. Irastorza, Sukia eta Gartzia zehaztu digutenez, erantzun ezberdina izan du mozioak herri bakoitzean. "Ordizian onartu egin zen, IU-EB, PSE-EE eta EA aldeko botoekin. EAJ oso kontra azaldu zen. HBek ez zuen parte hartu Mahai Nazionala epaitzen ari zirelako". Beasainen ez zen onartu. "EAJ-EA-PSE hirukoak kontra bozkatu zuen; IU-EB bakarrik azaldu zen alde; HBek ez zuen parte hartu Mahai Nazionala epaitzen ari zelako". Lazkaon azkenik, azaroaren 27an onartu zuten. "EA abstenitu egin zen, eta beste guztiek onartu egin zuten".

Mendi-martxa

Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak deituta, mendi-martxa egingo da, igandean, abenduak 14, Itsasondoko tren geltokitik Alegira. Goizeko 9.30etan abiatuko da ibilaldia. Anto-

latzaileek norberak bere janaria eramateko aholkatu dute. Azaroaren 30eko Larreoko martxan parte hartu zutenei dei egiten die ibilaldi honetan ere parte hartze-ko.

Euskal Herriko Gazta txapeketa

Juan Aldasorok ekarri zuen azaroaren 30ean Lizarratik Zegamara Euskal Herriko Gazta txapelketako txapela. Bigarren eta hirugarren postuak ere goierritarren-

tzat izan dira: Juan J. Aranburu zeraindarra eta Jesus Aranburu idiazabalarra. Azken honek, iazko txapela berak jantzi zuen, Idiazabalen jokatu zen edizioan.



88 55 00 ORDIZIA



GARMENDIA ERAIKUNTZAK

TEILEN BIRGAITZE, MANTENIMENDU ETA MUNTAIA

69 35 49 - 989 65 34 52 Alkorta Enea, 3 2. esk. - ZIZURKIL





Senideak-en martxa ibiltaria

Abenduaren 6an iritsi zen Senideak elkarteak antolatutako martxa ibiltaria. Gaur egun "euskal preso politikoek Espainia eta Frantziako espetxeetan jasaten duten egoera larria da, eta 1987an Gobernu Espainiarrek dispartzioaren politika ankerra aplikatu zutenetik, presoek egoera okertu egin da. Dispartzioaren ondorio latzak jasaten ditugu presoek senitartekoek eta presoek beraiek. Honi amaiera emateko, Gasteizko Giza Eskubideen Batzordea osatzen duten alderdiek akordio bat adostu zuten 1995eko abenduaren 28an eta 1996ko urriaren 3an, akordio hori osatu eta hobetu zuten. Egun ia bi urte igaro dira lehen akordioa hartu zutenetik eta urtebete bigarrenaz geroztik. Epe honetan, ez da inolako aurrerapausorik eman euskal presoek jasaten duten sakabanaketari amaiera emateko eta pairatzen duten egoera bideratzeko", dio Senideak-ek.

Gauzak honela, euskal

presoen sakabanatze politika berehala amaitzea; zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten presoek berehalako askatasuna; gaixotasun sendaezina sufritzen duten Euskal presoek berehalako askatasuna; Nafarroa eta Gasteizko legebiltzarrean erabaki politikoak lehenbailehen bete ditzatela eskatzen diete erakunde politikoei; "Gobernu Espainol eta Frantse-saren itxikeriaren aurrean eta Euskal Herriko gehien-go sozialaren nahia lortu eta bere artean, presoek aldeko ponentziak sinatu zuten erakunde politiko orok etengabeko jentioak egin ditzatela exijitzen dugu"; eta azkenik, erabaki hauek berehala errespetatzen ez badira, "presok eta beraien senitartekoek pairatzen duten egoera Europako instituzio eta egitura ezberdinetara" eramango dituzte.

Goierrin egun osoan zehar hainbat ekintza egin ondoren, arratsaldean, Beasaindik Ordiziara manifestazio jendetsua egin zen.



Herri-eskola

Konstituzio egunean, abenduaren 6an, herri-eskola berezia antolatu zuen Ikasle Abertzaleak taldeak Ordiziako Enparantza Nagusian. Gaurkotasunezko gaiak jorratu zituzten bertan: Gizateriaren Legea, euskara, erraustegiak, herri txikietako komertzioa, azpiegiturak eta Konstituzio espainiarra.



Euskal liburu, disko eta bideo azoka

Goiztiri AEK Euskaltegiak, VI. Euskal liburu, disko eta bideo azoka antolatu du Beasainen. Azoka Kale Nagusi 32an behean, abenduaren 22ra bitartean. Arratsaldean egongo da zabalik. Astearte eta larunbatetan goizez ere bai. Beasaingo Udaleko Euskara-batzordearen laguntza izan du AEK-k. Ordizian ere hainbat saiakera egin dituzten arren, eta areto egokirik ezin izan denez aurkitu, ez da liburu eta disko azokarik antolatuko.



rainbow rainbow rainbow rainbow
Aterki eta poltsak, bidaietako artikulak,
konponketak, gerrikoak, etxeko diseinuak...

San Inazio, 2 BEASAIN ☎ 16 09 65
Errementari, 5 TOLOSA ☎ 67 41 43

mujika
OINETAKOAK

Nafarroa Etorbidea, 11
☎ 88 27 16 BEASAIN

Goierriko Objeto Taldearen agurra

9 urteko bizitzaren ondoren, afari batekin agur esan zaio Goierriko intsumituen babesari izan den Goierriko Objeto Taldeari (GOT). Agurraren zergatiak azaldu dizkigute Mikel Lasas eta Ramon Lizarraga GOTeko kide ohiek.

"Intsumisioak azken urte hauetan lortu duen arrakastaren lekuko, bultzatzaile eta koordinatzailea izan dugu Goierriko Objeto Taldea. Lan honen ondorioz, ehundaka goierritar gazteok soldadutzari aurre egin eta dinamika antimilitarista bat aurrera eramane ahal izan dugu", dio Lasak.

Azken aldian ordea, taldeak dinamika galdu eta taldea berpizteko ahaleginak egin badira ere, ez dira eraginkorrak izan, "piskanaka itzaltzen joan da taldearen dinamika".

Egoera honetara iristeko arrazoiak Kode Penal berrian eta gertu dagoen armadaren profesionalizazioaren omen datza. "Kode Penal berriak suposatu izan du kartzela zigorra desagertzeko eta zigor izkutuak martxan jartzea; 10 urteko inhabilitazioa eta isuna tarterko. Kode Penal berriaren aurretik gazte bat intsumi-



tua zelako kartzelara joatea aktualitatea zen. Baina gazte bat lanposturik gabe edukitzea ez da inongo aktualitatea, gazte mordo bat dagoelako langabezian. Horrek nolabait itzali egin zuen erreibindikazio arlo hori. Errepresioaren arloa izkutan geratu denean, intsumisiook ez dugu jakin gure erreibindikazioak bideratzen beste era batera". Gauzak honela, Mikel Lasak, intsumisioaren paradoxa azaldu digu: "intsumisioa, gizarteak onartua, gazteok aurrera eramane gaur egun normalizat hartua, baina era berean normaltasun horretan itotzeko arriskuan dagoena".

Armada profesionala

Armada profesionala begi aurrean izateak ere eragin du intsumisio mugimenduari beherakadan. "18 urteko gazte askok ikusten du hemendik 3 urtera ez dela ezer izango eta luzapenekin

egongo dela. Jendea profesionalizazioaren zain dago. Asko aldatu da panorama".

GOT desagertu da, baina "horrek ez du esan nahi intsumituak baztertu behar ditugunik, bakoitzak ahal duen bezala lagunduko du ingurukoa. Talde bezala ez dugu funtzionatuko baina, kontaktua mantenduko dugu", dio Lizarragak.

Erreleboa

Taldearen desagertetasun beste irakurketa bat ere egiten dute: "beste iniziatiba batzuk behar dira gazteen artean, taldea berriz sortzeko. Orainartekook ez dugu lortu gazteak inguratzea. Berraz, taldea uzteak beste talde bat sortzea badakar, hobeto. Bukatu egiten da, baina aldi berean ateak irekita uzten ditu berria sortzeko, erreleboa nahi dugu".

Hori bai, GOTen desagertetasuna ez dute porrot bezala ikusten. "Gobernuak

agindu duen armadaren profesionalizazioa, nolabait teko garaipen txiki bezala onartu beharra dago, nahiz eta helburu guztiak ez diren bete. Egoera orokorraren ondorioa da desagertetasuna. Nik ez dut uste hau bukatu denik. Agian orain arte erabili ditugun instrumentuak aldatu egin behar dira, ez dago intsumisioa lehen bezala aldarrikatzerik. Gauzak aldatu dira eta horretara moldatu behar gara".

Antimilitarismoaren transizio momentuan gaudela diote. "Armada profesionala etortzen denean nondik jarraitu behar du? Soldadutza eskubide indibidual bezala bermatuta egongo da, eta guk eskubide indibidual horren alde lan egin dugu batez ere. Nahiz eta antimilitarismoaren helburua gizartearen desmilitarizazioa izan. Gauza asko dago egiteko, baina ikuspuntu berri hori jende berriak jorratu behar du".

Objeto-intsumitu

GOT intsumisio izenarekin batera sortu zen, duela 9 urte. "Guk objeto hitza ulertzen genuen orain intsumisioa ulertzen den bezala. Garai hartan lehenengo objetoak ziren eta gero egiten zen intsumitua. Gero objeto bihurtu da bide ofiziala, prestazio soziala onartzen duena; eta filtro hori pasatu gabea intsumitua da", argitu du Lasak.

IBAI-ONDO



**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK**



EGIN APUSTU DONOSTIAGATIK



CASINO GRAN KURSAAL

ZUBIETA, 2. HOTEL LONDRES ERAIKINA. 20007 DONOSTIA

ERRULETA FRANTSESA, ERRULETA AMERIKANOA, BLACK JACK,
AZAR-MAKINAK ETA DESKARTE GABEKO POKERRA



URTE OSOAN ZABALIK ARRATSALDEKO 6.00ETATIK AURRERA

MIKEL MENDIZABAL GOIERRIREN ORDEZKARI BERTSOLARI TXAPELKETAKO FINALEAN: "Aurtengoa azkeneko txapelketa izango da, segurasko"

Igandean, abenduak 14, Euskal Herriko Bertsolari

txapelketaren finala jokatu da Donostiako Belodromoan. Taula gainean izango diren zortzi bertsolarietatik bat, goierritarra izango da: Mikel Mendizabal itsasondoa.

- Espero al zenuen finala sartzeara?

- Horrelako txapelketetara joaten zarenean esperantza minimo bat beti izaten da. 2 fase izan dira. Laurdenetako pasatu ondoren beste amets batzuk egiten hasten da. Gero finalerdietan finala gertuago ikusten da... Esperantza banuen, baina aldi berean ikusten zen leku gutxi zegoela eta borrokatu



Mikel Mendizabal, bertso-eskolako zenbait ikasleekin.

beharra zegoela.

- Ezustekorik izan al da txapelketa honetan?

- Bi eratakoak. Onak izan dira gazteen aldetik Maia, erdi galdurik zebilena, arrastoan sartu da zuzen. Oihane Enbeita ere azpima-

rratuko nuke. Oso forma egokiak ditu, ausardia eta etorria. Aitor Sarriegi ere aipatuko nuke. Finalerdietara iritsi da. Bagenekien Aitorrek bazezakeela, baina beti hor gelditzen zen, lehertu gabe. Sorpresa gogo-

rrak izan dira beste aldetik, oso faboritoak zirenak finala sartzeko, Aitor Mendi-luze, Jokin Sorozabal, Iñaki Murua, Igor Elortza...

- Zu beti bezala, erregular-erregular.

- Erregularraren fama hori ez zait batere gustatzen. Nahiago nuke irregularra goa izanda ere, momentu batzuetan dizdira gehiago atera, akats batzuk egin. Baina aldatzea ez da erraza.

- Finala nola prestatuko duzu?

- Ez dut entrenamendu berezirik egingo, finalaurrekoetarako egin nuenarekin jarraitu baizik. Orain arte egindako lan batzuk errepikatuko dira, baina badira beste lan berri batzuk ere.

Markoztatu zure desio onenak



MARKOZTATZE TAILERRA
KOADROAK-ISPILUAK-PORTAFOTOAK
LAMINAK-GRABATUAK

Zure ideien aukerak ikus itzazu
Aholkatu eta zure beharrei egokitu
soluzioak eskainiko dizkizugu.
Kontsulta gaitzazu!

Urdaneta, 52
Tel. eta Faxe 161871
ORDIZIA

Orain, barrualdean baita eskaintzak ere



"Sortu berezko estiloarekin"

Bi ariketa berri horiek en-saiatuko ditut. Eta gero ba-tez ere, mentalizatu. Nik uste dut, guk, irabazteko aukerarik ez dugunok, ez dugula nerbiorik izan behar. Pasa beharrekoa pasatu dugu, finalean sartzea.

- Urduri egongo direnak Egaña eta Lizaso izango al dira?

- Batez ere. Biak dira faborito nagusiak eta jokoan gehiena beraiek jartzen dute. Erantzunkizuna ere beraiek daukate. Baina ezustekoren bat egon liteke. Tolosak Retegiri pelotan irabazi egin zion finala. Tolosak irabazteko aukera bakarra zegoen ia: Retegik hain ondo ez jokatzea eta Tolosak oso ondo jokatzea. Final honetan hori gertatzeko posibilitadea badago. Hala ere, Egaña eta Lizaso bikote handia da eta gaur egun diferentzia markatzen dute.

- Doinu berriak ateratzeko asmorik ba al duzu aurten?

- Nik ez. Txapelketa batzuk izan ditut doinu berriak landu ditudana. Baina neke handia da eta aurten nahia-go izan dut, nekea doinueta-rra dedikatu beharrean, arrazoi-eta irudimenera dedikatzea. Doinu berriak aipatzen dira beti, baina badaude oso gutxi erabiltzen diren doinu zahar ederrak.

- Beasaingo saioan zure ikasle batekin, Aitor Sarriegirekin aritu zinen.



irabazi zuenean, eta 1995ean, Mendiluzek irabazitakoan.

- Oso sensazio polita da. Gogoratu egiten zara Bertso-eskolan mutiko bat eza-gutu genuela eta, noraino iritsi den. Nik 41 urte daukat eta txapelketa honetako ia zaharrena naiz. Belaunaldiak askoz azkarrago datoz. 1989an Jon Lopategik txapela irabazi zuen 55 bat urterekin. Aurrerago Uztapidek txapelak 50 urtetik gora atera zituen. Amurizaren belaunaldia etorri zen eta 40 batekin atera zuen. Eta gero gazteagoak, 1986an Lizasok, 29 urterekin jantzi zuen txapela. Egaña gazteagoa da. Bizkaian Iturriaga 20 urterekin eta Gipuzkoan Mendiluze 19 urterekin izan ziren txapeldun. Horrek esan nahi du belaunaldiak geroz eta azkarrago eta erreleboak ere geroz eta azkarragoa datozela. Nik nahiko argi daukat, guretzat segurasko hau azkeneko txapelketa izango dela. Gauzak logikaz hartu behar ditugu, guk hemendik au-

Itsasondoko Iraola base-rrian jaioa, 41 urte ditu. Gipuzkoako Ikastolen Elkartean dabil lanean, bertso-larritza sustatzea ardura hartuta. Laugarren finala du aurtengoa: Euskal Herriko txapelketako finalean 1989an izan zen, Lopategik irabazi zuenean. Gipuzkoako txapelketan, bi finaletan izan da; 1983an, Peñagarikanok

rrera txapelketan aportatze-ko gutxi daukagu. 2 belaunaldi berri badatoz.

- Belaunaldiak azkarrago etortzean, bertso-eskolen eragina nabaria da, ezta?

- Funtsezkoa da. Kirolean bezala da, jendea geroz eta azkarrago hasten da prestatzen, geroz eta prestakuntza hobea egiten dute. Bertsoetan ere berdin. Gaur egun Euskal Herrian daude 15 urterekin bertsoetan parra-parra egiten dutenak. 18-20 urterekin puri-purian egongo direla esan nahi du horrek. Jende asko dator, eta kantitatek kalitatea ere errazagoa da. Txapelketan abantaila handia dute gazteek, txapelketetan gazte-gazterik hasten direlako.

- Goierrin ba al da belaunaldi jarraipenik?

- Bai, bai. Gure atzetik badaukagu belaunaldi bat: Munduate, Narbarte, Gerriko, Elortza, Eguren eta Sa-

riegi. Atzeagotik beste belaunaldi bat, 16-17 urte ingurukoa: Aritz Zeberio, Ekaitz Goikoetxea, Alaitz Sarasola, Alaitz Alustiza, Iñaki Apalategi... Eta gero bertso-eskolatik ere beste taldetxo bat bideratzea es-bero dugu. Bertso-eskolaren funtzio garrantzitsua da, bi edo hiru urtetik behin, talde berriak zehaztea eta bidean jartzea, gurpilari jarraipena emateko.

- Emakumeak ere gogor datoz.

- Bai, Maialen Lujanbio historian finalean sartu den-lehenengo emakumezkoa da. Plazetan presentzia badago dagoeneko, eta Maialen finalean izateak aurrerapauso bat suposatuko du, emakumeen presentziaren normalizazio bide horretan.

- Txapela noiz etorriko zaigu Goierrira?

- Puska batean ez.

- Oraingoan ere ez?

- Ez, ez, hori seguru. Hori kasualitatek gora pasatuko litzateke. Gainera ez da kasualitate hutsez etortzea, txapela ere erabili egin behar da. Nik uste txapela faboritoen inguruan daudenentzat izango dela, eta hala behar duela. Txapela edozeinek jantzea ere ez da komeni. Bere karga ba omen du. Nire kasuan, finalera pasatzea nahiko txapel da, gauzak hain estu zeudenez. Bukaera on bat ematen saiatuko gara.



✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.

✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...

✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta batz bestea

MANDUBIKO BENTA

jatetxea

MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierrirako bidean

Tfnoa.: 88 26 73

Andoni Aizpuru: "eguraldia asmatzen ez dugunean izugarrizkoak entzun beharra izaten ditugu"

3 3 urte. Abadiñon bizi da gaur egun Andoni Aizpuru, baina bere herria, Gabiria, ez dauka saltzeko. Lanak eta bestelako konpromezuek ez diote ordea nahi bezain sarri Goierri aldera etortzen uzten. Elurra noiz egingo zain, egunero gauean hurrengo eguneko eguraldia kontatzen digu, Bertatik Bertara, berriz, hango eta hemengo kontuak etxeko sukaldetara ekartzen dizkigu Andoni Aizpuruk.

- Telebistan aritu aurretik non lan egiten zenuen, eta nola izan zen telebistarako salto hori?

- Errenteriako Udal Euskaltegian klaseak ematen nituen. Telebistan duela 5 urte hasi nintzen. Eguraldia aurkezteko kasting-a zegoela jakin, aurkeztu eta aukeratu egin ninduten. Lehenengo urtean eguraldia bakarrik egin nuen, gero Euskadi Zuzenean aurkeztu nuen Madalen Iriarterekin eta hurrena Bertatik Bertara.


- Eguraldiaren informazioa ematerakoan, zuek egiten dituzue prebisioak ala beste norbait aritzen da atzean lan horretan?

- Hasieran bazegoen lan horretan aritzen zen pertsona bat. Nik piskanaka ikasi nuen berarekin, gero berak alde egin eta bakarrik geratu nintzen. Hala ere argitu beharra dago guk meteorologoen egindako lana jasotzen dugula, Internet bidez..., eta mapetara egokitu egiten dugu. Gure lana jendeari hurrengo egunean hemen zein eguraldi egin behar duen esatea da.

- Eta asmatzen ez duzuenean?

- Izugarrizkoak entzun beharra izaten ditugu. Gogorra izaten da asmatzen ez denean. Baina hala ere nik bizi egiten dut eguraldiaren kontu hori, txikitik elurzale amorratua izan naiz, negu partean beti zain egoten nintzen elurra noiz egingo. 400 metrotik gora elurra botako zuela esaten zutenean Gabirira ere iritsiko zela pentsatuz aritzen nintzen. Espainiako telebistan aritu zen eguraldi gizon bat ere badut gogoan, haren estiloa asko gustatzen zitzaidan eta gero kasualitatez neroni tokatu zait lan hori egitea.

- Zer duzu nahiago, Eguraldia aurkeztea, informatiboetan aritzea edo



Bertatik Bertarako aurkezle izatea?

- Bertatik Bertaran oso gustora nago, nolabait esatearren neurria egindako saioa da. Gure gustoko gauzak egiten ari gara, guk geuk moldatutako saioa delako. Eguraldia aurkeztea, berriz, egunero gauza berdintsua izaten da eta gustatu ezean aspertzeko arriskua ere badu.

- Bertatik Bertara saioak arrakasta handia izan du, orain gainera orduz ere aldatu egin dute, saio honekin "asmatu" egin duzue?

- Bertatik Bertara sortu zenetik asko aldatu da, ha-

sieran eguerdirako saioa zen, gero gauera pasatu zenean programa izaera hartu zuen eta azkeneko bi urteetan aldaketak egin ditugu. Hala ere iaiztik hona ez da asko aldatu, egia da dekoratu berriak eta ordutegi aldaketak ere mesede egin diotela baina funtsean iaizkoaren antzekoa da. Asmatu, beharbada jende xehearrengan hurbildu garrelako asmatu dugu. Albistegietan normalean betiko jendea ateratzen da, guk bestelako jendearengana jo dugu eta herriarengana hurbildu gara.

- Bertatik Bertara egiten duzuenetatik asko goierritarrak zarete, gaiak askotan ere hemengoak, uza aberatsa al dago Goierri?

- Taldearen zati bat Goierrikoa da, Eli Garmendia eta Iñaki Leturia Ormaiztegiak dira, Joxe Mari Gabiria Zumarragakoa eta ni Gabiriakoa. Askotan esaten digute Goierri aldeko kontu asko ateratzen ditugula. Egia esan guk asko ezagutzen dugu inguru hau eta jendeak ere askotan deitzen digu halako edo bestelako antolatu dutela esanez. Euskal Herriko beste leku ba-

ORDIZIA
AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76



GOIERRI
Taberna
Jatetxea

Kale Nagusia, 18

☎ 88 00 00

BEASAIN

Bazkariak
eta afariak
momentuan
edo
enkarguz

tzuetan ez dugu behar bada hainbeste jende ezagutzen eta beraiek ere ez gaituzte gu ezagutzen. Baina Goierriko kontuei ez diegu lehenetasunik ematen. Orain hala ere taldean bizkaitarrak eta nafarrak ere baditugu, eta egia esan guri zabaltzea gustatzen zaigu. Bizkai aldetik etortzen dira batzutan kritikak, batez ere gipuzkeraren erabileragatik, baina guk ahalegina egiten dugu hizketarakoan neutralak izaten, hala ere bakoitzari nongoa da atzeman egiten zaio.

- Inaki Urdangarinen eta Espainiako infantaren ezkontza ere aurkeztu zenuen. Zer moduz?

- Kasualitatez gertatu zen eta ez nik hala eskatu nuela. Beste pertsona batek egin behar zuen lan hori, baina azkeneko momentuan zerbait sortu zitzaion eta niri egitea tokatu zitzaidan. Egia esan ez da nire giroko gauza bat, hala ere egin genuen eta ez naiz horregatik lotsatzen. Gainera Euskal Telebistako euskarazko kateak audientzia dextente izan zuen emankizun horretan, nik uste dut euskaldunei neurri batean horrelako gauzak gustatzen zaizkiela.

- Hizketarako erraztasun handia duzu. Gaur egun lantzen al da alor hori?

- Geroz eta gutxiago lantzen da. Egia esan erreztasun horrek berezkoa izan behar du neurri batean, nik berezkoa

Laburrean

- Zein albiste emango zenuke gustora?

- ETAK su etena aldarrikatu duela eta gure artean konpontzen hasi garela.

- Eman duzun albisterik gogorrena?

-Atentatuen berri ematea gogorra da, baita istripuena ere. Gogoan dut, Durangon, Telebista ondoko autopistako ordainlekuan kamioi batek ordaintzeko zain zeuden kotxeak aurretik eraman zituenekoa.

- Kamara aurrean gertatutako bitxikeriaren bat.

- Kamara aurrean zuzenean jarri nintzen lehenengo egunean oso urduri negoen, berez lasaia naiz, baina egun hartan erabat urduri nengoen. Esan beharrekoa gainera kamara aurrean idatzita agertzeko prestatuta nuen, eta zuzenean geundela nik idatzitakoaren ordeztu albigetietako testu bat jarri zidaten.

- Gustora aurkeztuko zenukeen saioa?

- Bertatik Bertararen oso antzeko saioaren bat, beharbada elkarriketa gehiago izango lukeena. Elkarriketa eta ikuskizuna pixka bat nahastuko luken saio luze-zeagoa aurkeztuko nuke.

badut hitzjariora, baita azkar hitz egiteko joera ere, baina guztia familiatik datorren



- Korbata, makilaia...

- Hasieran ez nintzen oso eroso sentitzen, ni ohituta nengoenerako aldaketa handia izan zen. Orain Bertatik Bertaran ez dut korbata askotan jutzen. Makilaia gaurerik onena, aurpegitik kentzerakoan ematen duten masajea izaten da.

- Bertatik Bertarako lehiaketan, zein animaliarekin parekatuko zenuke zeure burua?

- Bakarren batek loroarekin esango luke, asko hitz egiten dudalako, baina fisikoki ez dakit. Egia esan oso ariketa polita da jendea animaliekin alderatzea. Nik askotan egin dudana gauza izan da, gure koadrilan askotan egiten genuen, eta aurtengo lehiaketarako proposatu nuen.

- Zergatik duzu elurra hain gustoko?

- Ez dut berezko arrazoirik. Gure etxea Gabirian, kasikoan dago, 400 bat metro-ra, eta txikitan lo nengoela, elizako kanpaiak hots lehorragoa egiten zuela entzuten nuenean elurra egin zuela jakiten nuen. Orduan leihoa ireki eta guztia zuri-zuri ikustea izugarria izaten zen. Naturak duen fenomenorik politena da. Elurak gainera eskolarik ez, jolasa, eskiatzea, paisaia bereziak... hori guztia ekartzen dit burura.

- Ezkur urte...

- elur urte. Aurten izugarriko ezkur pila izan da. Tenporak Gabon aurreko astean dira eta Pello Zaballak esan zuen aurten udazken amaiera negu girokoa izango zela eta asmatu du. Ia behingoz esaera zaharra betetzen den eta aurtengo neguan elurra sarri ikusten dugun.

ere orain ez dakit hainbeste garrantzia ematen zaion.

Xabier Urteaga

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BERSAIN

GESTORIA Biok

ASEGUROAK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g
☎ 88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

SEGURA

Ahozko hainbat istorio idatziz jasoak

Azken 2 urteetan antolatu dituen gabonetako kulturaldietan jasotakoa liburuska batean argitaratuko du Elorri K.E.ak gabonetarako. Ahoz gordetzen ziren eta belau-naldi berriekin betirako galduko ziren herriko hainbat kontu eta istorio, betirako jasoak geratu dira. Joxe Insaustik, Laureano Telleriak, Antonio Garaialdek, Bittor Agirrek eta bertan parte hartu zuten beste zenbait herri-tarri entzundakoak 5 atale-tan bildu dira: "Herriko ger-takizun eta ateraldiak", "Galbidean dauden herriko izenak eta ohiturak", "Herri-ko tabernak lehen eta orain", "Baserri lanak", eta "Futbo-la gure herrian", "Pelotaren lehena eta oraina gure he-rrian" ataleko zinta galdua dago eta ezin izan da jaso.

Gabonetako III. kulturaldia

Oraindik zenbait zehaztasun falta badira ere, Elorri K.E.ak ondorengo kultural-dia antolatuko du: **Aben-duaren 26a:** Segurako ma-pa toponimikoa egin zutene-kin solasaldia, Kultur etxe-an. **Abenduaren 27a:** arratsaldean, haur jolasak plaza eta inguruetan. Afalondo-ren, Markel Telleria gitarra-jolearen lagunarteko debuta Elorripen. **Abenduaren 29a:** tenpora eta eguraldiaz hitzaldia Pello Zabalorekin, Kultur etxean.

Azterketa arkeologikoak

Antonkalenekoena den "Abellanone" edo "Gabrie-

lene" izenez ezagutzen den etxeko patioan Aranzadiko-ek egin duten zulaketan, 30zma, zerkalde hasieratik datorren eta herrian gora do-an harresiaren aztarnak aur-kitu dituzte. 1,28 zmko za-balera du eta gutxienez 5en bat metroko altuera izango omen zuen Aranzadikoez diotenez.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Errejonak:** Segura 2-2 Urki. **Jubenilak:** Amaro 1-2 Segura. **Kadeteak:** Tolosa 2-4 Aizkorri. **Infantilak:** Aizkorri 1-4 Aretxabaleta.

Asteburuan etxean: Za-patua: Infantilak: Aizkorri-Eibartarrak, 11:00etan. Ka-deteak: Aizkorri-Elgoibar,

16:00etan. **Jaie:** Infantil es-kolarrak, 11:00etan. Jubeni-lak: Segura-Aldapetarrak, 16:00etan.

Labur labur

● **Herri kontsulta:** Madu-rako lurjabeek, erreferendu-ma eskatzearen aldeko 402 herritarren sinadura jaso di-tuzte. Hauek, eskariarekin batera, abenduaren 3an aur-keztu zizkioten Udalari. Batzar Nagusietan ordezkari-tza duten alderdiei ere bi-dali dizkiete eskariaren eta firmen kopiak.

● Abenduaren 4an, kale, plaza eta leku izen inpor-tanteenei, brontze itxurazko burnizko errotuloak jarri zi-tzaizkien.

● **Mus Txapelketa:** aben-

duaren 12an, 22:00etan, Zo-pajale Elkartek antolatuta, elkartearen bertan. Jokoa, 8 errege eta 3 usteletara. Biko-teko 2.000 pezeta eta izen ematea bertan. Sariak: 1goa-ri: %50a eta trofeoa, 2garre-nari: %30a eta trofeoa eta 3garrenari: %20a.

● **Mutxiko dantzak:** aben-duaren 13an, 10:30etan, Elorrik antolatuta, mutxiko dantzen ikastaroa izango da Baratze pelotalekuan.

● **Odol ematea:** abendu-aren 13an, 17:00etatik aurre-ra, Osasun etxean.

● **Kirol eskolarra:** mendi irteera abenduaren 14an, 8:30etan plazatik irtenda, Lizarrausti eta Ataungo Er-goena auzora. Egun berean, alebinek eta infantilek 2. kros proba izango dute Do-nostiako Bera-beran.

● Elorri K.E.ak herriko hainbat firma komertzialei esker, iazko **IV. Elorri idaz-lan txapelketara** aurkeztu ziren idazlanak liburuska batean kaleratuko ditu gabo-netarako.

● Egin egunkariak argitara-tu berri dituen "Euskal klasi-koen antologia" konpakto bilduman, Aita Donostiak konposatutako 15 lanetan, **Xegundo Galarza** segura-rra da pianojolea.

● **Aerobic ikastaroa:** Laz-kaoko "Kemen" kirol osa-sun zerbitzuak antolatuta 15etik 50 urte artekoentzat. Informazioa: 16 22 26.

Joseba Telleria

Gabonak

Gabonetako ekitaldien inguruan zenbait gauza oraindik era-baki eta lotu gabe badaude ere, badira aurreratu daitezkeen batzuk:

● Gabonak girotu asmoz, Udalaren inizatibaz, dendetako eskaparate eta tabernetako **gabon apaingarrien txapelketa** egingo da. Irabazleei herriko produktuez osatutako gabon saski bana oparituko zaie.

● Abenduaren 21ean, mezaren ondoren, urteroko haurren **kantu eta anda txapelketa** egingo da. Lanak plazan aur-keztu beharko dira 11:30etarako. Atal bakoitzeko 3na sari banatuko dira eta guztiek izango dute sariren bat.

● Abenduaren 23 arratsaldean da **Olentzero beheko eskola-ra** etortzekoa. Ikazkin zaharrak, 3tik 7 urtera bitarteko hau-rreri intxaurrak banatu eta beren marrazki eta eskutitzak ja-soko ditu.

● **Olentzeroren etorrera:** urtero bezalaxe, abenduaren 24an, 18:00etan izango da Olentzeroren etorrera, herrita-rrak, txistulariak eta korua lagun dituela. Elorri K.E.koek zenbait aldaketa proposatu dizkiote Udalari: Olentzeroren itxura ikazkinarena izatea karroza ere zertxobait moldatuz. Honek, antortxeroak lagun dituela mendiz egitea herrirako etorrera, herri buelta eginda plazan amaitzeko. Bertan, opa-riak banatuko lizkieke umeei.

Gabon zoriontsuak guztioi!!

THAILA Boutiqua

PORFIRIO FERNANDEZ Sastrea

HAIZPEA Jatetxea

OSKI Oinetakoak

LURDES LASA Ilapaindegia

LUBERRI Loradenda

MARGARI Goxotegia

NICK'S English Centre

ZURICH-VITA Aseguru taldea

Optika LARRAÑAGA

ARANTXA Mertzeria

JUBILATU ETXEKO Taberna

AXOLA Jantzidenda

INAKI Ilapaindegia

ANA MARI Arraindegia

UNANUE Goxotegia

ARKUPE Tapiztegia

GAIR Aseguruak, C.B. ITTERCOS

Labores AGUR

JOSUNE Estetika Zentrua

IBERDROLA

IZOTZ Izozkiak

Abenduaren 22 arratsaldean, eta 23 - 24 egun guztian OLENTZERO gutunak jaso eta gaztina erreak banatzen ariuko da

**JOXE MIGEL BARANDIARAN PLAZAN
ORDIZIA**

MULTIOPTICAS

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16
Tel. 76 15 75
BERGARA

J. Carlos Guerra, 1
Tel. 79 29 95
ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp.
Tel. 88 99 88
ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2
Tel. 20 05 22
EIBAR

MULTIOPTICAS ERRETERIA

Pl. de La Esmaltería, 7
Tel. 51 78 11
ERRETERIA



Uztzagabekor opariak

Aukera ezin hobea

J.P. : 15.150
GABINETAKO PREZIO BEREZIA
12.125

J.P. : 5.450
GABINETAKO PREZIO BEREZIA
3.575

J.P. : 12.500
GABINETAKO PREZIO BEREZIA
8.900

J.P. : 13.500
GABINETAKO PREZIO BEREZIA
10.540

EXISTENTZIAK BUKATU ARTEKO PROMOXIOA



KILLER LOOP

ZURE AMETSÉTAKO
KILLER LOOP-ak
EROS EZAZU
ETA ERAMAN ESKULARRU
HAUEK OPARITZAT

%15eko DTOA.
EGUZKITARAKO
BETAURREKOTAN

**ERREGE
BAT
BEZALA
GELDITU.
OPARITU
EGUZKIA.**

GEORGE ARMAN
by Joliet
bolle
CARRERA
EASUN
look
INDO
Christian Dior
parfums
STING
NINA RICCI
fragrances
VOGART
Ray-Ban

Zure "Ray-Ban"ekin
kutxatila
berezi bat
oparizat

EZKIO-ITSASO

Itsason Ostatu berritua



Azaroaren leian inauguratu zen Itsasoko Ostatua, non bertan Ezkio-Itsasoko Udalak egin dituen zaharbertizkeko lanak. Orduz geroztik, bertako Maite Arzelus eta Legorretako Berni Altunak ekin diote arrakasta handia izaten ari den lanari. Haien esanetan, babarrunak eta baserriko oilaskoa izango dituzte espezializatetzat, nahiz eta aukera askoz zabalagoa izan: tripaki, mingain, txipiroi, txuleta... eta

arrainik ederrena enkargatuta; etxeko postrerik ere ez da falta.

Astean zehar eguneko otordua ere eskaintzen da (astelehenetan izan ezik, atsedeen eguna baita), goizeko 9.30ak aldera irekitzen dituelarik ateak. Jangelan hirurogei lagun inguru sartzen dira eta aldezturik aurretik lekua eskatu beharra dago (telefonoa: 88 03 15).

Pilare Mujika

OLABERRIA

Gabonetako ekintzak

Udalak Gabonetarako hainbat ekintza antolatu du.

- **Haurrentzako tailerrak:** 3 eta 9 urte bitarteko haurrentzat antolatu dira, abenduaren 22tik urtarrilaren 2ra. Arratsaldeko 3.00etatik 5.00etara izango dira. Gaur amaituko da tailer hauetan parte hartzeko izena emateko epea. Udal-letxean edo Udal Liburutegian, 1.000 pezetaren truke.
- **Haurren Olentzeroa:** Iurreko ikastetxearekin ba-

teginik egingo da. Bertan herriko edozein haur edo gaztekin parte hartu ahal izango du. Entseiuak gaur, abenduak 12, eta 19an egingo dira, arratsaldeko 7.00etan, Kultur Etxean.

- **Helduen Olentzeroa:** Abenduaren 19an entseiu bakarra egingo da, arratsaldeko 7.30etan, Gimnasioan. Izenemateak egun berean, bai bazkarirako, bai jantziak eskuratzeko.

Nagore Goiburu



VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN

A HOLKULARITZA

GOENAGA ARANBURU

AHOLKULARITZA OROKORRA: laborala, soziala, fiskala, merkantila, kontablea.
GESTORIA: ibilgailuak, garraioak, berrikuntzak, eskriturak.

**J. M. Iturrioz, 6
BEASAIN**

Gabon zoriontsuak denoi !

☎ 16 00 65
Faxa: 16 03 59

ARRIETA

JATE TXEA

☎ 88 00 02

OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

BEASAIN

'Loinatz-97'-ren azken arnasa



'Loinatz-97' elkartekoak CDaren aurkezpenean.
Arg.: Juntxo Unanua.

Loinazko San Martinen heriotzaren IV. mendeurrenaren aitzakian sortutako 'Loinatz-97' elkarte, urtearekin batera agur esateradator. Bi ekintza gelditzen dira bukatu aurretik: bata, igandean, abenduaren 14an, Loinatz abesbatzak eta Ordiziako Oroith abesbatzak elkarrekin, Xabier Sarasola musikariak konposatutako 'Loinazko San Martinen kantata' estreinatuko da. Kantataren hitzak Andoni Sarriegirenak dira. Arratsaldeko 7.30etan izango da.

Abenduaren 19an hasita, berriz, 'Loinatz-97'-k urtean zehar antolatutako ekintzen irudien laburpena azalduko duen argazki-erakusketa izango da Usurbeko erakusketa-aretoan. Urtero egiten den San Silvestre krosean ere ahalegin berezia egingo du 'Loinatz-97'-k, Beti-Bizi elkarte lagun-

duz, finantzaketa baten bidez, krosaren maila hobetzeko.

Honekin hilko da, beraz, 'Loinatz-97'. Bertako kide-etariko bat den Jon Lizarralde, balorazio baikorra egin du. Egin dituzten ekintzekin gustora daude. Hala ere, pena bat badute: "ez gara iritsi guk hasieran zehaztu genituen helburuetaraino. Batetik, parte hartu beharreko taldeek ezin izan dutelako posible, Bidasoa eskubaloitaldeak eta Donostiako Orfeoia adibidez. Baina bestetik, guk uste dugu, herrialdetik gehiago egitea zegoela. Herriko indarrarekin, herriaren irudimenarekin kontatzen genuen, baina horiek ez dute forma hartu. Bi arrazoiegatik seguraski, batetik, guk ez dugulako jakin jendearengana iristen; eta bestetik, jendea bakoitz bere gauzetan dagoela-

Udal-gidaliburua

Hirugarren Udal-gidaliburua kaleratuko du Udalak. Abenduaren 18an egingo da aurkezpene, eta Gabonetarako etxean izango duzue.

Bi arlo orokor ditu gidaliburuak: arlo turistikoa, herriaren ezaugarriak eta historia; eta herriko zerbitzuak.

Lehenengo atalean, Beasainen datuak, historia, pertsonai historikoak, armarria, bandera, ondarea, auzoak, ostalaritza, odolkiak, martintxoak, jaiak, usuarioak... biltzen ditu.

Bigarren atal handi batean, Udaletxeko zerbitzuen gida biltzen da. Udalbatza nortzuk osatzen duten, zein batzorde dauden, zein lan egiten duten, zein zerbitzu eskaintzen dituen. Horrekin batera, herrian dauden beste zerbitzu eta bulego administratibo guztiak ere biltzen dira.

Gidaren bukaeran, Beasainen egin daitezkeen ibilbide turistikoak azaltzen dira. Eta baita Beasainen plano orokor bat ere: enpresa nagusiak non dauden, trafikoaren norabideak eta kale-izenak zehaztuz. Atal bakoitzean, herrian dauden zerbitzuen gida eta telefonoak azaltzen dira.

Bi helburu ditu gidaliburuak Miren Kortaberria Udaleko Kultur teknikariak azaldu digunez. "Batetik, beasaindarrek herriko zerbitzuak zeintzuk diren eta nola erabili behar diren jakinaraztea, eta herrian zer daukagun azaltzea. Kanpotarrentzat ere egokia da gida, herrian daukaguna biltzen baita". Kortaberriak adierazi digunez, Udaletxean telefono zenbakiak aldatzera doaz. Gida honetan, telefono berriak azalduko dira, zaharrekin batera.

Publizitatearen bidez finantzatu da. Datu bilketa Patxi Gonzalezek egin du. Dohainik banatuko da gidaliburua. 7.000 bat ale kaleratu dira, herritar guztiengana iritsi nahi baita.

ko sartuta".

Lizarralde gaineratu digunez, 'Loinatz-97'-k "herriaren kultur dinamika bat sortzea, oinarriak jartzea, eta aurrerantzean jarraipena izatea" lortu nahi izan du, "baina ez gara gai izan. Alde horretatik ez dugu helburua bete".

1997. urtearekin batera bukatuko da 'Loinatz-97'. Taldea sortuta dagoela aprobetxatuta, beste arlo batean, aurrera jarraituko ote duen ala ez, erabakiko dute "egun batzuk itxaron, hausnartu eta lasaitasunez".

MIRENTXU

LIBURUDENDA • OPARIAK • PAPERDENDA • FOTOKOPIAK • FAXA

Gabon zoriotsuak denoi!

Nafarroa Etorbidea, 7

☎ 88 04 55

BEASAIN

Kale Nagusia, 1

☎ 88 14 57

GABONETAN:

- JAIOTZAK
- GABONETAKO
- APAINGARRIAK
- OPARIAK

ORMAIZTEGI

Iñaki Kanpos odolkieta, Merzero eta

Azkarate palan irabazleak



Iñaki Kanpos odolkieta.

Igaro berriak ditugun Ander Deunaren jaiek emaitza eta irabazle berriak ekarri dizkigute. Bigarren festa aste-buruan eguraldiak batere lagundu ez bazuen ere, giro bikaina izan zen.

Larunbatean, eguraldiari aurre eginez, herria moztu taldeek jantzi zuten kolore berezia emanaz. Arratsaldean Zubipe kiroldegian talde gehienak bertaratu eta giro bikaina jarri zuten. Ur-

tetik urtera taldeek lan ho-beagoak aurkezten dituzte. Aurtengo irabazlea japoniarren taldea izan zen. Bigarren kanibalak gelditu ziren eta hirugarren beltzen abesbatza. Madrileñek, bainistek, eskozesek eta eskaleek ere sariak eskuratu zituzten.

Mozorroren desfilearen ondoren Joselu Anaiak taldea izan zen festa giroa jartzaren aritu zena. Eguraldia txarra zela eta su artifizialen jaurtiketa bertan behera utzi behar izan zen.

Ander Deunaren eguna iristearekin batera, herriko bi banketxe koketez erasotu zituzten, bulego hauen gainean bizi ziren bizilagunak etxetik atera beharrean izan ziren. (Ikus 4. orria).

Egoera honetan iritsi ginen Ander Deunaren eguna. Goizean Meza Nagusia eta Easo abesbatzako Eskolaniaren kontzertua izan ziren entzungai. Ondoren Berjaldegi enparantzan Igo odolki osagaien azoka eta XI. odolki lehiaketa ospatu ziren.

Azokari dagokionez, esan behar txerri onenaren saria Urkulei baserrikoak eramane zuela, bigarrena, berriz, Jauregiarentzako izan zen. Tipulari dagokion lehenengo saria Aierberi eman zitzaion; porru onenarena, berriz, Juana Lazkanori; perrexilarrena Lopategiri. Postu dotoreenaren saria herriko Udabarro baserriko Raffaelek jaso zuen.

Azokari zegokion irabazlearekin batera XI. Ormaiztegiko Hiria odolki lehiaketa irabazlea ere ezagutu zen. Lehenengo saria Iñaki Kanpos herritarra jaso zuen; bigarrena Beasaingo Olanok eta hirugarrena ere, Jesus Mari Deba herritarra.

Goizean aurrekoek gain, XXXIII. San Andres Ziklokros saria jokatu zen herrian osaturiko zirkuituan zehar. Jubenilen mailan Zumaiako txirrindu elkarteak Iker Ortiz izan zen irabazlea; kade-te mailan, berriz, Renault Durango taldeko Aitor Hernandezek lortu zuen lehen postua.

Arratsaldean V. San Andres pala txapelketa jokatu zen Zubipe kiroldegian Merzero eta Azkarate, Txomin eta Jose Luisen aurka aritu ziren. Partidua bere osotasunean puntuetara ia parekaturik joan zen. Azkenean txapela herrian gelditu zen, irabazleak Merzero eta Azkarate izan zirelarik. Ondoren Gabiriako Goruntz dantza taldearen saioa ikusgai izan zen, eta pilotariei ere beraien aurrekua eskaini zien.

Gauerdian ospatu zen gazteen danborradan ez zen beste urteetako giroa izan inoiz baino jende gutxiagok parte hartu zuen, herriko koadrila gehienak ez ziren bertaratu eta bertaratu zirenetatik gehienek danborrak bertan behera utzi baitzituzten.

Astelehenean hurrek egun guztian zehar berarentzat jarriko parkean ibiltzeko aukera izan zuten aurtengo festei amaiera emanaz.

Aitziber Murua

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI



Rubiorena
jatetxea

AURREZ PRESTATUTAKO PLATERAK
GABONETAN ETA BAITA URTE OSOAN ERE
PLATERAK PRESTATZEN DITUGU ZURE
ETXERA, ELKARTERA, KUADRILEN
BAZKARIETARA, e.a. ERAMATEKO

- Eguneko menua
- Dastatzekoa
- Lanekoa
- Karta

Tfnoa.: 88 57 60

ORDIZIA

Aparteko azoka Gabon egunean



Gabonak hurbiltzen ari zaizkigula konturatuko zineten dagoeneko, honen lekuko baitira telebistako iragarki guztiak, buzoietan jasotzen dugun propaganda edota herria bera nola ari diren apaintzen ikustea. Eguberrietako aparteko azoka ere guzti honekin batera etorriko zaigu, abenduaren 24an hain zuzen. Joaneko urte batzutan data aldatetarik jasan izan baditu ere (Santo Tomas eguna zela eta), aurten berriro ere ohiko egunera pasa dute. Honela, eguberri eguna izaki, kantukantari ibiliko diren haur mordoarekin bat egingo du.

Aparteko azoka denez, ez dira faltako hala nola, kapoi, antzar eta indioilarren erakusketa pilotalekuan, Euskal Artzai-Txakurren erakusketa Garagartza Plazan, edota errege-sagar, fruitu eta fruitu lehorren txapelketa, ahari eta ardi latxen erakusketarekin batera.

Olentzero bisitari

Goizean aparteko azoka nagusi izango bada ere, arratsaldean Olentzerok hartuko dio txanda. Izan ere aurten ere euskal tradizioei jarraituz, Olentzeroren bisita jasoko dugu. Barrena Kultur Etxeko atarian laster izango

dugu, haurren eskutitzak jasotzeko asmoz, noski. Eta ondoren, aipaturiko asteazken horretan txintxo portatutako umeei euren eskariak betetzen saiatuko da Olentzero.

Aurreko urteen antzera, arratsaldeko 6:30etan aterako da Olentzero Garagartza Plazatik, Ordizia kaletik barrena, Urdanetara sartuz eta bira eman ondoren herri guznea sartzeko. Urdaneta eta Jakintzako dantzariak beren betebeharrak egingo dituzte bidean zehar. Olentzero azkenik Enparantza nagusiko oholtzara igoko da bertaraututako haurrei agur egiteko. Hemen dantzariak beren saioa egingo dute, abesbatzekoek egingo duten antzera.

Jaiotzen erakusketa

Eta Eguberri giroan murgilduta gaudenez aipatu abenduaren 22tik 31ra bitartean Ordiziako OHoko ikastetxeetako ikasleek egindako Jaiotzen Erakusketa ikusteko aukera izango dela Barrenan. Urtero gauza politikak ikusteko parada izaten dugu eta ziur aurten ere ez dutela

hutsik egingo. Ikustorduek arratsaldeko 6.00etatik 8.00etara izango dira.

Bertsolariak

Euskal Herriko Txapelketa amaitu eta gero, bertso onez gozatzeko aukera izango dugu oraindik ere. Izan ere, urtero bezala, Argi Berri Elkarteak Ordiziako Udalaren laguntzaz Bertso saioa antolatuko du abenduaren 27rako. Saioa Majori Kiroldegian izango da eta ziur txapelketan goian ibilitakoek ez dutela hutsik egingo.

Euskararen aldeko tonbola

Iazkoan huts egin ondoren, aurten berriro martxan jarria dago euskararen aldeko tonbola. Boletoak bi tabernetan izango dituzue eskuragai, Orbela eta Arantxa tabernetan hain zuzen. Betiko sariez gain, taberna bakoitzean boletoak amaitzean musika kate bat zozketatuko da.

Aitor Calvillo



Artesania
Opariak

K. Nagusia, 28
© 16 02 48
ORDIZIA



BIÑASPRE

USAINDEGIA
OPARIAK
ESTETIKA ZENTRUA

K. Nagusia, 8 ☎ 88 13 37

ORDIZIA

Opariak
Gabonak 97



JOS & BEL
ILEAPAINDEGIA

- Azken estilo, kolore eta teknikak
- Kosmetika eta osagarriak
- Festa egunetarako orrazkera bereziak

Urdaneta, 15 ☎ 88 82 52

ORDIZIA

IDIAZABAL

Euskararen egoera Udaletxean

Goierriko euskara taldeek II. Jardunaldia egin zuten azaroaren 29an Lazkaoko Maizpide Euskaltegian. Jardunaldian Goierriko Udaletako hizkuntza funtzionamendua eta plangintza aztertu zen.

Idiazabalgo Udalaren izenean Xabier Imaz Kultura batzordeburua izan zen, gure herriari dagozkion datuak azaltzeko. Datu horien arabera, Administrazioari lanetan euskara ehuneko ehun erabiltzen da Idiazabalgo Udaletxean eta kanpoko zerbitzu batzuekin harremanak erdaraz egiten dira.

Udala osatzen duten haia zinegotziak euskaldunak dira, eta Udaletxean bertan lanean dihardutenak ere euskara erabiltzen dute lanerako. Udalak beste lanetarako (garbiketa, etxez etxeko laguntza zerbitzua...) 25 langile ditu kontratatuta, horietatik batek izan ezik beste guztiek euskaraz egiten dute. Guztiek euskara ez hitz egitearen arrazoia Xabier Imazen esanetan, "horrelako lanpostuetarako deialdiak egiten direnean, behar ekonomikoari begiratzen zaio beste ezeri baino gehiago".

Udalak azken urteotan eskaini dituen bi lanpostu egonkorragoetan (aguazil plaza eta kiroldegiko ardu-



Nesken taldea Bartzelonako Nazioarteko torneoan

Kirol Elkarteko Futbol aretoko taldeak denboraldia ongi hasi du. Emaizta onak jasotzen ari dira eta maila handiko jokua egiten ari dira. Laguntzaile eta entrenatzaileak lan handia egiten ari dira, eta lan horren emaitza da besteak beste Gipuzkoako federazioak hartutako erabakia: Fernando Prados Gipuzkoako 18 urtez beheko nesken hautatzailerak aukeratzea.

Pradosek zuzendutako taldeak aurreko asteburuan Gasteizen jokatu ziren Espainiako selekzioen txapelketan parte hartu zuen. Selekzioan herriko jokalaririk bat ere aritzen da: Bego Artola. Gipuzkoako selekzioa Idiazabalen egon zen bilduta Gasteiza joan aurretik.

raduna) euskara baldintza bezala jarri duela ere jakinarazi zen.

Herriko datuei dagokienez, 1988 eta 1994 urte bitarteko datuek erakusten dutenez herritarren, %87 euskaldun hutsa da (2.030 biztanletik 1.700 euskaldunak dira). Erdaldun kopuruari dagokionez %8 da erdalduna Idiazabalen. Azken kopurua murrizteko lan egin beharra dagoela gogo-

ratu zuen Xabier Imazek.

Arduradun lanpostua

Kultur Etxeko arduradun, zaindaria lanpostua betetzeko deia egin du Udalak. 1998ko urtariletik ekaina bitartean bete beharreko lana izango da (arratsaldeko 18.30etatik 20.30etara). Lanpostua eskuratu ahal izateko ondoko baldintzak eskatzen dira: 18 urte baino gehiago izatea, EGA edo

antzeko tituluren bat izatea, ardura gaitasuna eta Kultur arloko esperientzia. Horrekin batera egoera ekonomikoa ere kontutan hartuko du Udalak.

Lanpostu horretarako eskariak abenduaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira Udaletxean.

Gabonak

Konturatzerako gabonak iritsi dira. Bi aste eskas barru izango dira eta urtero bezala herrian gabon kantak entzuteko aukera izango da. Hilaren 24an goizean Herri Eskolako haurrak ibiliko dira kantari herriko kaleetan barrena.

Arratsaldean gazteen txanda izango da, hauek baserrietako ibilbidea beteko dute. Eta afaldu aurretik, berriz, txistulari taldearen eta Parrokiko koruaren txanda izango da, herriko plazan eskainiko dute hauek kantaldia. Bukaera Gazte Asanbladakoak plazara azalduko dira ea litekeena da iaz bezala Olenzero berrir ere beraiekin etortzea. Gazte Asanbladakoek gaur bertan bilera egingo dute arratsaldeko 18.00etan guztia antolatze-ko.

Xabier Urteaga

Argazkiak: Xabier Urteaga

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

LAZKAO

Euskal liburu eta diskoen azoka



Abenduaren 12tik 14ra izango da aurtengo azoka.

Durangoko euskal liburu eta disken azokak izan duen arrakasta itzelaren babesean, azken urte hauetan sona handia hartu du herrian, ekimen kultural honek. Aurtengoarekin, bederatzi-garren urtea da jarraian azoka hau egiten dela eta maila apalago batean bada ere, gureak ere arrakasta ona duela esan daiteke.

Aurtengo azoka, abenduaren 12tik 14ra burutuko da, berritasun handi batekin gainera, aurreko edizioak ez bezala aurtengoa Sarasola autobusen garajeetan egiteko asmoa da. Udaletxe azpiko kokagunea aldatu egin behar izan dute bertan egiten ari diren obrek lekua murriztu baitute.

Esan bezela, abenduaren 12an zabalduko da arratsaldeko 6.00etan, itxi berriz gaueko 8.00etan itxiko dute. Larunbatean, berriz, honako ordutegia izango du

azokak, goizez 11.00etatik 2.00etara eta arratsaldez berriz 4.00etatik 8.00etara. Abenduaren 14an, igandean, azkenik goizeko 11.00etatik 2.00etara bakarrik egongo da zabalik.

Aurreko urteetan bezala azokan saltzen diren liburu eta diska guztiek % 10eko beharapena izango dute, eta beraz euskal kulturgintzako azken nobedade garrantzitsuenak erosteko aukera ezin hobea izango dugu denok bertan.

Presoak Euskal Herrira plataforma

Azkeneko Udal plenoan, talde politiko guztien oniritziaz, Senideak taldearen mozio bat onartu zen. Bertan beste eskakizun batzuren artean, euskal presoak Euskal Herriko garteletara ekartzearen beharra aipatzen zen. Gai honekin jarraituz, herrian plataforma bat aurkeztu zen abenduaren 6an. Plataforma honen helburuetako bat euskal presoen egoera aztertzea da eta horretarako lanean hasteko irrikaz agertu ziren. Ikus dezakezuenek, pentsamolde desberdinetako jendez osatutako multzoa bildu zen.

Txorizugarri edo kusoan erakusketa

Azkeneko alean aipatu genuen bezala, txorizugarri lehiaketa burutu da herrian azken egunetan. Iaz baino kuso gutxiago agertu diren arren, agertu direnak (30etik gora) maila oso ona erakutsi dute. Lehiaketa honetako sari banaketa gaur bertan abenduaren 12an egingo da Udaletxean edo eta Sarasola autobusen garajeetan, ondoren erakusketa zabalduko delarik.

Erakusketaren ordutegia honako hau duzue:

-abenduaren 12an: arratsaldeko 7.00etatik 8.00etara.

-abenduaren 13an: 11.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 20.00etara.

-abenduaren 14an: 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.00 etara.

-abenduaren 15, 16 eta 17an: 10.00etatik 12.00etara eta 14.30etatik 17.00etara.

Gainerantzean, aipatu behar da aurreko urteko kusoan argazkiak ikusteko aukera egongo dela eta baita sei minututako diaporama bat ikustekoa ere, iazko lehiaketako kusoan diapositibez eginga azken hau.

Moskorrak musa

Abenduaren 20an izango da aurtengo Moskorrak taldearen mus txapelketa. Bikote bakoitzak 3.000 pezeta ordaindu behar ditu jokatu ahal izateko eta irabazleak 120.000 pezeta eta txapel bana eramango ditu. Haez gain 8 lehen sailkatuentzat ere izango dira sariak: bigarrenentzat 60.000, hirugarrenentzat 30.000 eta laugarrenentzat 15.000 besteak beste.

Olentzero entseiuak

Gabon gauean kantari atera nahi dutenentzat lehen entseiuak abenduaren 16an, astearte, izango da, 21:00etan Maizpiden.

Ikusentzunekoa

Abenduaren 17an, Patxi Sanzek ikusentzunekoa eskeiniko du gaueko bederatzieta, Maizpide Euskaltegian. Ikusentzunekoa izena ondoko hau duzue, 'Neguko solstizioa Euskal Herrian'.

Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu

GOIERRITARRA



88 96 12



ORDIZIA
BIDEO
KLUBA

Domingo Unanue, 1 ☎ 88 79 19
ORDIZIA



GOIERRI

Ikerketaren Zentrua

Gida-agiri eta arma baimenetarako ikerketak

Astelehenetik ostiralera: 11:00etatik 13:30etara.

Larunbatean: 9:30etatik 11:00etara.

Gabon zoriontsuak guztioi!

Garagarza Pl. 10 ☎ 888734 ORDIZIA

ATAUN

Urteko Udal aurrekontua

Abenduaren 3an egindako plenoan onartu zituen Udalak datorren urterako aurrekontuak eta horrenbestez, erabakita utzi zuen batetik zertan gastatuko duen dirua eta bestetik nondik jasoko duen. 208.736.458 pezeta dira guztira, hau da, 1997. urteko aurrekontuekin alderatuz gero, 50 milioi gehiago.

Inbertsioetarako erabiliko duen diru kopuruak goraka egin du nabarmen (105.475.000), Udalak diru iturri zehatz eta "berezi" batzuk espero baititu, hara nola: San Gregorioko frontoia egiteko Diputazioak bere garaian agindu zuen 37.500.000 pezetatako diru laguntza, San Martingo antzokirako erakunde berak jarriko dituen 10 milioi pezetak, San Martin eta San Gregorioko mediku etxeak saltzetik lortuko dena...

Inbertsio horietatik kultura azpiegiturak izango dira garrantzitsuenak. Hona hemen nola gastatuko den diru hori dena:

San Martingo antzokia (futbol zelaia zen tokian egiten ari diren etxe berrietan kokatuko dena) egiteko 40 milioietako partida aurrikusten da (10 Diputazioak jarriko ditu). Antzoki hori ekintza ezberdinetarako erabiliko da (antzerkia, hitzaldiak, zinemaldiak, proiektzioak...) eta 250 la-

gunentzako lekua izango du.

Etxe berri horietan bertan kokatuko den liburutegia eta Udalak erosiko dituen bi lokalentzako 27 milioi beharko dira (horietatik zati bat, gutxienez, San Martingo mediku etxea salduz lortutako diruarekin estaliko da, mediku zerbitzua lokal horietako batean joango denez).

San Gregorioko eskola zaharrak berritzeko 25 milioi daude aurrekontuetan. Eskola zaharrotara pasatuko da mediku etxea (auzo gunera gerturatuz) eta gainontzeko lokalak zertarako erabiliko diren oraindik erabakitze dago (Kultur batzordearen esku). Beharrezkoak diren 25 milioi horietara iristeko, San Gregorioko mediku etxea salduko da.

Joxemiel Barandiaran Interpretazio Zentruari lotuta, berriz, herriko toponimien mapa egiteko 2 milioi aurrikusten dira eta Aitzarte inguruan egin nahi den eskalada eskolarako 500.000 pezeta.

Ekintza kulturalak aurrera eramateko, 3.120.000 pezeta erabiliko dira.

Kulturak daraman "mauka" edor horrez gain, badira beste inbertsio batzu ere:

Baserri bideetarako 13.000.000.

Eate abesbatzaren emanaldia

Eate abesbatzaren emanaldia izango dugu abenduaren 20an San Martingo elizan iluntzeko 8.00etatik aurrera. Eguberriak gerturatzen ari direla eta, urteroko legearekin betetzeko asmoa dute horrenbestez. Emanaldia 12 kantuz osatuta dago, 3 Eguberrietakoak eta gainontzekoak, berriz, herrikoiak eta bestelakoak. Datozen festak girotzen hasteko aukera bikain hori ez galdu!

Astigarraga-Arrondo argitu edo "iluminatzeko", 1.000.000.

Paskual iturri nahiz Sute-gi inguruko urbanizazio proiektuak egiteko, milioi bana.

Joxemiel Barandiaran gogoratzeko

6. urtez segidan, Joxemiel Barandiaran Murkondo Kultur Elkarteak hainbat ekintza antolatu du, abenduaren bigarren erdialdera begira. Hona hemen egitaraua:

Abenduak 14, igandea: "artzantza eta bere ingurua" gaiari lotuta, tresna erakusketak, artaldeak, ardi ile-moztaileak, mondeju eta gazta dastaketa... San Gregorioko plazan goizeko 11.00etatik aurrera.

Abenduak 19, ostirala: "Oihulari Klown" taldearen eskutik ipuin kontaketa saioa eta ondoren, ipuin lehiaketaren sari banaketa, Joxemiel Barandiaran eskolan arratsaldeko 14.30etatik aurrera.

Abenduak 20, larunbata: goizeko 11.00etan San Gregorioko plazatik abiatuta irteera Olaluzeagako karobira (Nekane Urdangari-nek Ataungo karobieie buruz hitzegingo digularik) eta arratsaldeko 8.00etan San Martingo elizan Eate abesbatzaren emanaldia.

Abenduak 28, igandea: organo kontzertua Vicente Ros-en eskutik, arratsaldeko 6.00etan San Martingo elizan.

Abenduak 30, asteartea: Joxe Ramon Agirre 'Marron' en K2 mendia buruzko ikusentzutekoa, arratsaldeko 7.30etan Udaltxeko ganbaran.

Abenduak 31, asteazkena: D, E eta F ereduak ipuinen sari banaketa, San Gregorioko eskoletan goizeko 11.30etan eta eguerdiko 12.00etan Joxemiel Barandiarani lore eskeintza (Saratik hilobira oinez joandak).

Josune Aldabe

Proba itzazu
"Beasaingo Martintxoak"
Eguberri zoriontsuak!
Nagusia, 11
Nafarroa Etorb., 19
☎ 88 82 37 BEASAIN

UNANUE
UME JANTZIAK
Puerikultura
Nafarroa Etorbidea, 4
Tfnoa.: 88 71 94
BEASAIN

GOIERRITARRA

88 96 12

ZEGAMA Juan Aldasoro Euskal Herriko Gazta txapeladun



Juan Aldasoro Zabaleta zegamarrak irabazi zuen Euskal Herriko Gazta Txapelketa, azaroaren 30ean Lizarran egin zen txapelketa.

Juanek esan digunez, duela 40 urte hasi zen artzantzan, baina bere aita nahiz aitona ere artzainak omen ziren. Buenabista baserrian jaio zen artzain honek berekasa ikasi omen zuen gaztaren teknika perfektionatzeko. Ardiak uda partean Santa Espiritutik Aratz bitartean larreratzen ditu eta negurako Buenabistara ekartzen ditu.

Lizarran aurkeztu zuen gazta ketutakoa omen zen. Gazta ketzeko egurrik hoberena elorriarena dela esan digu, baina hau botatzea debekaturik dagoenez, pagoa erabiltzen omen du. Batzuek altza erabiltzen dutela dio baina bere iritziz gehie-

gi bezten du egur honek gazta.

Gatzagiari dagokionean, beti etxekoa erabiltzen duela esan digu, natural natural. Erosleen gustuari galdetu diogunean, adierazi digu ketutako gazta ondo saltzen dela

baina ketu gabea ere gero eta gehiago eskatzen omen du erosleak.

Lizarran lortu zuen sari hau, lortu duen garrantzitsuena bada ere, aipagarria da iaz ere oso goi mailako gaztak egin zituela. Ez baita kasualitatea Legazpiko txapelketan 3. saria eta Elgoibarko azokan, San Silbestre egunekoan, lehenengo saria ateratzea.

Adinekoen astea

Asteartean hasi eta igandera bitartean 'Adinekoen astea' ari gara ospatzen herrian. Hainbat joko eta hitzaldi izan dira astean zehar eta gaur ostirala, jokoan azken saioa izango da. Bihar, abenduak 13, arratsaldeko 4.00etan, bideo emanaldia izango da; 'Zegamarron Erromesa Arantzazura, 1985. urtekoa'. Ondoren,



txokolate beroa dastatzeko aukera izango da. Ekintza guztiak, Jubilatuen elkartearen burutuko dira. Igandean azkenik, eguerdiko 12.00etan ospatuko den Meza izango da, hildako adineko guztien alde.

Kirol emaitzak

Futbitoan eta azaroaren 15ean jokatu zen jardunaldian, honako emaitzak lortu zituen Aitxurik: Neska benjaminak: Aitxuri A 3 - San Benito B 3; Aitxuri B 8 - Murumendi 1; mutil benjaminak: Aitxuri 1 - Laiotz 0.

Olentzeroren irteerak

Abenduaren 24ko Olentzeroren irteerak zehaztuta daude. Goizean 9.00etan, Aitxuri herri-eskolako ikasleak aterako dira kantari; 11.00etan, eskolaurreko haurrak. Arratsaldean, herriarrak, 14:30etan, baserri-baserri ibiliko dira kantuan; eta 18:00etan, herrian. Irteera guztietara ere, aitonamonez jantzita joatea komeni da.

Eguberri jaialdia

Abenduaren 28an, Eguberri jaialdia izango da, San Martin Parrokian, iluntzeko 7.00etan, herriko Orkatz abesbatzak eskainita.

Errege jaialdia

Tobera Musika Eskolako Batzordea Errege bezperako jaialdia prestatzen hasita dago eta ohar honen bidez, iaz bezalaxe 40 bat antortza eramaile behar dituela adierazten dute. Horretarako prest dauden zegamar eta zeraindarrak behar omen ditu, azken herri honetakoak Zegamako jaialdira atxikitzen direlako. Izena ematea honako toki hauetan egin dezakezue: Kultur Etxeko iragarki taulan, Txanton edaritegian, Baztartxo edaritegian eta Zeraingo Mandioa tabernan. Izena abenduaren 21a aurretik eman behar da.

Bideo emanaldia

Kultur Etxean, arratsaldeko 5.00etan, abenduaren 14an, 'La isla de las cabezas' bideoa eskainiko da.

Edurne Albizu

ELECTRO ORIA

SALMENTA - ZERBITZU TEKNIKOAK



SATELITE BIDEZKO ANTENAK
TELEFONO MUGIKORRAK
AUTO-IRRATIAK
VIDEO-HIFI
TB-ak

Tfnoa. eta Faxe: 16 05 33
Nafarroa Etorb., 7 - BEASAIN

J. ARANBURU
OINETAKOAK

Gabon zoriontsuak opa diskizuegu guztioi!

Kale Nagusia, 36
88 01 27 BEASAIN

Axier Mendizabal, Iñaki Garmendia eta Jaume Sabaterren arte erakusketa Barrenan

Ordiziako Axier Mendizabal eta Iñaki Garmendia, eta Jaume Sabater artista gazteen erakusketa ikusgai egon da gaur arte, Ordiziako Barrena Kultur Etxean. "Deskribitzeko zaila, baina intentzioz betea" dagoen erakusketa da, Axier Mendizabalek aitortu digunez.

9 artelan daude Barrenako erakusketa aretoan. Gehienak eskulturak dira. Azken 2 hilabeteen egindako lanak dira, erakusketa hau buruan zutela egindakoak. Dena den, bada pieza bat, erakusketa muntatzen ari zirenean egindakoa. "Zalantza izan genuen hasieran, kontestua kontutan harturik egindako erakusketa egin ala guk benetan egingo genukeena egin. Irtenbiderik zintzoena emate-



Jaume Sabater, Axier Mendizabal eta Mikel Garmendia Barrenako erakusketa antolatzen.

ko, genuena ematea erabaki genuen", dio Axier Mendizabalek. Batera egiten duten lehenengo erakusketa da. Bakarka gehiago eginak dituzte.

Arte Ederretan lizentziatu berriak dira, duela 2 urte bukatu zituzten ikasketak. Gaur egun Donostiako Artelekun pasatzen dute eguna, bertan dituzten estudioetan artelanak sortuz.

Gizarteko inkomunikazioa

Erakusketa deskribatzea

zaila dela dio Axierrek. Denetarik dago. Baina horrek badu barne intentzio jakin bat. "Gaur egun gizartean dagoen inkomunikazioa adierazten du erakusketak. Erakusketaren zailtasun irudi hori hortik dator. Benetan komunikatzea esparru horietan zaila delako. Ideologikoki komunikatzeko dagoen zailtasuna islatzen saiatzen da erakusketa. Sentimentu politikoa arte bidez islatzeko intentzionalitatea dago. Ezinezkotasunaren kontzientzia bat

badago", aitortu du ordiziarrak.

Goierritarrok ez omen gaude ohituta arte mota honetara. Kontestua ere ez omen da aproposetia. "Piezek lehenengo momentuan badute halako hoztasun bat. Baina argiarekin eta beste hainbat estrategia txikirekin lortu nahi izan duguna da, interes bat mantentzea. Sensibleagoak egiten ditu argiak piezak".

Gazteen etorkizuna

Axier Mendizabalen esanetan, artista gazteek garbi daukate "arte egitetik ez garela biziko. Gu merkatuaren miseriari larrienean hazitakoak gara. 80ko hamarkadan gutxienik aukera bat izaten zuten artista gazteek; gaur egun ez zaigu ezer agintzen. Guk garbi izan dugu ez dugula sekula izango merkatuaren mesederik. Irakaskuntzan edo beste edozertan aukerak aurkitu behar". Baina garbi utzi du ordiziarrak, artearekin duten konprometua.



HIDALGO

Eguberri on!

Bitxitegia - Erlojutegia

Opariak

Legazpi, 3
☎ 88 04 06 **ORDIZIA**



MARIAN LARREA

BARNE DEKORAZIOA

- ✕ ERREFORMAK
- ✕ PROIEKTUAK
- ✕ ESZENOGRAFIA

☎ 88 58 48 - 46 34 79

Oriamendi, 30 BEASAIN



MUJIK



BEASAIN ☎ 88 74 00

Koke Lasari eta euskal mendizaleei omenaldia

Ormaiztegin

Gaur ostirala, abenduak 12, iluntzeko 7.30etatik aurrera Ormaiztegiko Zubipe kiroldegian, Koke Lasa herritar mendizalea omenduko da bere hirugarren zortzimilakoa lortu duen honetan. Gaurko ekitaldiari hasiera emanez, Koke Lasak lortu berria duen Manaslu zortzimilakoari dagokion omenaldia eskainiko du. Ondoren omenaldiari ekingo zaio.

Omenaldi honetan leku garrantzitsuena Koke Lasa herritarra izango bada ere, euskal mendizaletasunaren historian zehar zortzimilako gailurrak lortu izan dituzten lehen euskal espedizioetako partaideak Ormaiztegiara etortzeko gonbidatu eta beraiek ere lekuko izango dira. Beraz, bereziki Koke Lasa, eta orokorrean euskal mendizaletasunari eskainiko zaien omenaldia izango da.

1979. urtean euskaldunek lortu zuten Dhaulagiri lehen zortzimilakotik, 1997. urtean lortu duten Manaslu gailurrera bitartean, euskaldunak 14 zortzimilakoetan izan dira. Gaur Ormaiztegiara espedizio guzti hauetako partaide izan zirenetatik 20 mendizale inguru hurbilduko dira. Espedizio bakoitzak bere ordezkaria izango du.

Ondorengo lerroetan,



euskaldunak garaitu izan dituzten zortzimila metrotik gorako mendien izenak adierazten dira, eta bakoitzetik gaur Ormaiztegin izango den mendizaleen izenak ere azaltzen dira.

1.- Dhaulagiri (1979): Iñaki Aldaia eta Xabier Garaioa.

2.- Everest (1980): Joxe Urbietia.

3.- Nanga Parbat (1983): Kike de Pablo.

4.- Makalu (1984): Mari Abrego eta Kike de Pablo.

5.- Cho-Oyu (1985): Xabier Garaioa, Iñaki Kerejeta, Juanito Oiarzabal, Mikel Ruiz de Apodaka eta Juan Jose Amezgarai.

6.- K-2 (1986): Mari Abrego eta Josema Casimiro.

7.- Gasherbrum II (1987): Juanito Oiarzabal.

8.- Kangchenjunga (1988): Juanito Oiarzabal.

9.- Annapurna (1988): Juanfer Azkona eta Pablo Aldai.

10.- Broad Peak (1994): Patxi Ibarbia.

11.- Hidden Peak (1995): Txetxu Lete eta Koke Lasa.

12.- Lhotse (1995): Juan Vallejo.


13.- Shisha Pangama (1996): Robert Larrandaburu eta Iñaki Otxoa de Olza.

14.- Manaslu (1997): Koke Lasa, Juanito Oiarza-

bal, Iñaki Kerejeta eta Naxo Fernandez.

Omenaldiaren ondoren bertaraturiko ikusleek munduko gailurrik altuenak zapaldu izan dituzten aipatu mendizaleei galderak egiteko aukera izango dute. Beraz, gaur Ormaiztegin, historian zehar euskal mendizaletasunak izan dituen nondik norakoak bertatik ezagutzeko aukera paregabea dugu.

Aitziber Murua



Oraingoz apusturik ez

Iñaki Azurmendi arriarandarrak desafioa egin zien Arria V. eta Belarra aizkolariei. Aspaldian ez genuen Goierri alde honetan apustu hotsik izan, baina oraingoz gabe jarraitu beharko dugu. Belarrak ez zion jaramonik egin desafioari. Eta, Arria V. eta Iñaki Azurmendi Tolosako Cantabriko tabernan ez ziren akordio batera iritsi.

Biei ere 500.000 pezetako apustua egin nahi zien, Belarri 20 minututik gorako lan bat, Arriari 8 oinbiko. Apustu luzea eta egur handiekin, beraz. Arriak, berriz, kana erdikoetara jokatu nahi zuen. Azurmendik 6 oinbiko eta 4 kanaerdikoetara jeitsi zuen eta Arriak 6 oinbiko eta 8 kanaerdikoetara igo. Baina azkenean hor geratu ziren akordiorik gabe. Oraindik hitz egingo dutela esanda geratu ziren. Beraz, itxaron egin behar Goierri apustu bat ikusteko.

Azurmendik azaldu duenez, "horrelako zerbait egiteko asmoa nuen eta orain dela gutxi Arriak elkarriketa batean esan zuen apustu bat egiteko gogoia zuela. Beti ere apustuekin inguruko jendea gehiago mugitzen da eta entrenatzeko garaian gehiago motibatzen zaitu horrek. Txapelketei begira prestakuntza egiteko ere balio du".

OIANGU

T A B E R N A



88 30 03

Euskalerrria z/g ORDIZIA

lues rothers
BEASAIN



Gabon zoriontsuak eta Urteberri on!

BASAKANA

ITURRIOZ, 11
BEASAIN



1961eko Gabon eskea Ataunen

Enrike Barandiaranek ateratako argazkia da. 1961ean, Ataunen, Gabon eskean ari zirenean ateratakoa. Kantariak hauek dira:

Ezker-eskubi eta goitik-behera: Mari Jose Oiarbide, Arantxa Barriola, Ana Mari Urdangarin, Maria Jose Imaz, Joakina Etxeberria, Juanita Arruabarrena, Maria Asun Bikuña, Amaia Alkorta, Izaskun Munduate, Lurdes Begiristain, Maria Dolores Agirre eta Arantxa Mujika.

URBITARTE
sagardotegia



Erreserba telefonoa
18 01 19

Ergoiena Auzoa
ATAUN



INPRIMATEGIA

URDANETA

KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ

Gabon zoriontsuak!

Urdaneta, 26

☎ 88 04 46 Faxa: 16 14 07

ORDIZIA

CHANEL

CLINIQUE

Calvin Klein

Jean Paul
GAULTIER

Patsma Picasso

San Inazio, 14
☎ 88 93 90
BEASAIN

Lirain

Gabon **Perfumeak** zoriontsuak!
Opariak

Kosmetikoz osatutako otartxo pertsonalizatuak

YVES SAINT LAURENT

Christian Dior

ESTÉE LAUDER

Oscar de la Renta

Foto IBILTARIA

✕ Estudio-saioak

✕ Argazki-materialen salmenta
Materiale profesionalen aukera zabala

✕ Argazki eta bideo erreportaiak

✕ Laborategi zerbitzu orokorrak



Errebelatueta kalitate onena

GEMA M. ARRUGAETA

Argazkilari profesionala

Elkano, 8 (Asto Kale)

DAVID MONTERO ARRUGAETA

Bideo eta T.B.-n espezialdutako teknikaria

☎/faxa: **16 22 64**

ORDIZIA

VENTANAS SAN MIGUEL

Mendeurren etorbidea, 2
(Sarrera Nafarroa etorbidetik)
Tl. 88 91 53 Beasain

*Zure ongizatea
babesteko gande*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIENTAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

Egunero Freskoena

✓ **URDAITEGIA**

✓ **HARATEGIA**

✓ **ARRAINDEGIA**

✓ **OKINDEGIA**

✓ **GOZOTEGIA**



PRYCA

**GOIERRI
MERKATARITZA ZENTROAK**